

... Sakana honetan
sar dadila
bakearekin
ondasuna ...



**Igandeko
hautskundeetan
Ahal Dugu
sendotu da >>> 5-8**



**Amiantoaren
kaltetuek
elkartea sortuko
dute >>> 9**



**Gerra eta bakea,
Haize Berriak
bandaren
kontzertua >>> 21**

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guzietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



abenduak-ilbeltzak 24-14

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Vascuencearen legea: abenduak 15 ZORION EGURRE!
29 urte, lazkarrioiyo! Al-daketa-Gobernubek asmoik ez baka de... Helduan urtien... ZORIONEKO AGURRE! Etxarriko EHE.

Iker eta Irati Ondarra
ZORIONAK bikote!!!! Orain-goan... LAU URTE!!!! Muxu pila bat eta besarkadak denon partez!!!!



ZORIONAK LUIS ta urte askotako!
Besarkada bat eta JO TA KE!



Lierni Zabala Mauleon
ZORIONAK printzesa!
7 muxu haundi amatxo, aitaixo eta famili guziyan partes.



Lierni
7 muxu Etxarriko lagun-partes. Ea txokolatea prestatzen diguzun, e? Ondo pasa zure egunean.

Musika

Gerra eta bakea, Gernika 1937. Abenduaren 26an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortian. **Haize Berriak banda eta Josu Maroto.**

Iñaki Auzmendi. Abenduaren 26an, larunbatean, 20:30etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Chuchín Ibañez y sus mariachis. Abenduaren 26an, larunbatean, 22:00etan Olatzagutiko Clinker jatetxean. **Kontzertu-afaria.**

Los Tenampas y el Mariachi. Abenduaren 27an, igandean, 17:00etan, Lakuntzako Kultur Etxean.

El Txino Kudeiro. Abenduaren 30ean, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Elkartasun kontzertua. Ilbeltzaren 2an, larunbatean, 19:30etan eta 22:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Trasteando.**

Entzun zak. Ilbeltzaren 2an, larunbatean, 20:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan.

Arkada Sozial eta Alerta Gorria. Ilbeltzaren 5ean, asteartean, 23:00etan Altsasuko Gaztetxean.

Zama doinuz arinduz. Ilbeltzaren 10ean, igandean, 18:00etan eta 20:00etan Etxarri Aranazko kultur txean. **Sare eta Etxerat.**

Antzerkia

Panpinen mundu magikoa. Abenduaren 27an, domekan, 12:00etan eta 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Luis Pardos Antzerki Ekoizpenak.**

Ekoetikopatetikoak. Ilbeltzaren 2an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Jabi Rodil eta Anabel Arraiza.**

Victor y el monstruo (Frankenstein). Ilbeltzaren 10ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Txotxongiloak

Itsasminez. Abenduaren 27an, igandean, 17:30etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Manolo Gomez eta Enkarni Genua.**

Ipuin kontalaria

Izaskun Mugika. Abenduaren 28an, astelehenean, 19:00etan Urdiaingo liburutegian.

Bideo emanaldiak

365 egun bideo ikuskizuna. Abenduaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Hiriberriko Txitera elkartearen eta abenduaren 27an, igandean, 18:30etan eta 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Proiektzioak

Arista oeste del Chamlang (Nepal). Abenduaren 30ean, asteazkenean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Mikel Zabalza.**

Iparrameriketarik bidaia. Ilbeltzaren 3an, igandean, 19:00etan Irurtzungo Pikuxar eskal txokoan. **Jorge Iriarte.**

Zinema

Una segunda oportunidad. Abenduaren 25ean, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 27an, domekan, 20:10etan Altsasuko lortia kultur gunean.

8 apellidos catalanes. Abenduaren 25ean, ostiralean, 20:00etan eta 22:15ean eta abenduaren 27an, domekan, 20:10etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Los juegos del hambre. Sinsajo II. Ilbeltzaren 1ean, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 3an, domekan, 20:10etan, Altsasuko lortia kultur gunean.

Planet 51. Ilbeltzaren 3an, igandean, 17:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Una noche. Ilbeltzaren 3an, igandean,

19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

El puente de los espías. Ilbeltzaren 7an, ostegunean, 19:00etan, ilbeltzaren 8an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 10ean, domekan, 20:10etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Una nueva amiga. Ilbeltzaren 8an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 10ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Star wars. El despertar de la fuerza. Ilbeltzaren 14an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Film laburrak

Emanaldia. Abenduaren 26an, larunbatean, 18:30etan Irurtzungo Pikuxar eskal txokoan.

Zatoz agur. Abenduaren 25ean, ostiralean, 20:00etan eta 22:15ean eta abenduaren 27an, domekan, 20:10etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Filmaren aurretik.**

Mendi irteerak

Erga (finalista). Abenduaren 31n, ostegunean, 9:00etan Irurtzungo Pikuxarren txokolate-jana eta mendira. **Pikuxar eta Iratxo mendi taldea.**

Aizkorri. Abenduaren 31n, ostegunean, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bargagain. Ilbeltzaren 4an, astelehenean, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Beriain. Ilbeltzaren 6an, asteazkenean, 9:00etan Unanutik. **Sakanako Mendizaleak.**

Erakusketak

Migel Angel Agirrerren oroimenezko VIII. marrazki eta margo lehiaketa. Ilbeltzaren 6ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko

lortia kultur gunean.

Jaiotzak. Ilbeltzaren 10era arte Olatzagutiako Sakanako Belenzaleen Egoitzan. Astelehenean larunbatera 18:00etatik 20:00etara. Domekan eta jai-egunetan, 13:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:30era.

Jose Maria Urabaien. In Memoriam. Ilbeltzaren 9tik 28ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Literatura

Un armario lleno de sombras (Antonio Gamoneda). Ilbeltzaren 7an, ostegunean, 18:00etan Irurtzungo liburutegian. **Irakurle taldea.**

Bestelakoak

Mus txapelketa. Abenduaren 27an, igandean, 16:00etan Irurtzungo Pikuxar eskal txokoan.

Jolas parkea. Abenduaren 28an, astelehenean, 11:00etatik 13:00etara Olatzagutiako Erburua kiroldegian.

Jolas parkea. Abenduaren 29an, asteartean, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara Irurtzungo frontoian.

Gabonetako jolas parkea. Abenduaren 30ean, asteazkenean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Etxarri Aranazko frontoian.

Eguberritako jolas parkea. Ilbeltzaren 4an, astelehenean, 16:30etik 19:30era Urdiaingo frontoian. Ondoren txokolate-jana.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 25ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungen, Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Altsasun eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.** Abenduaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenean ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Urtarrilak
hurrengo
saioa

8



107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Abenduaren 21etik urtarrilaren 7ra
Metropoli forala saioa entzungai

Gaur, Olentzero Euskalerrira irratian, opariak banatzen

Deitu 948 17 01 51

SAKANA



Ikastolek Satrustegiren lana "bihotzez" eskertu dute

Herrialdean sortu zen aurreneko ikastolak 50 urte bete dituela eta, Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) hainbat jardura antolatu ditu. "Ikastolen sorrerako garai zail eta malkartsu haie-tan ezinbesteko erreferente izan ziren lau lagun" saritu zituen NIEk ostira-lean: Jorge Cortes Izal, Jose Maria Satrustegi, Jesus Atxa eta Carlos Garaikoetxea. Arbazuarra zenaren Maria Jesus arreba izan ekitaldian. NIEko buru Josu Reparazek azaldu zuenez, lauren "inplikazioagatik, egindako lanagatik eta izandako ausardiarengatik" saritu zituzten. Adierazi zuenez, "bihotzez eskertzen baitiegu ikastolen eta euskararen alde Nafarroan eginiko lana eta beti egongo baikara zorretan beraiekin".

+www.guaixe.eus

>> Altsasu

Elkartasunari 10 urte doinuak jartzen

Ilbeltzaren 2an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Trasteando taldeak aurten 10 urte bete ditu. Bere emanaldien urteroko zerrendan Eguberriak elkartasun kontzertuak eskaintzeko gorde dituzte. Eta hala izanen da Eguberrihauetan ere. Taldeko 15 kideak Iortia kultur gunera igoko dira, euren hango eta hemengo doinuez entzuleei une atseginak eskaintzeko asmoz.

Cruz Mari Martinez taldekideak jakinarazi digunez, urteurrena ospatzeko aurreko elkartasun kontzertu guztietan lagundu dieten musikari guztiak gonbidatu dituzte. Izan ere, Trasteandok gitarrak eta ahotsak ditu adierazpide, baina halako emanaldietan metalak, txirulak eta akordeoiak dituzte lagun. Taldearen ibilbideko kantuen aukeraketa batekin osatuko dute 10. elkartasun kontzertuko erreperitorioa.

Eta horri gizarte erantzukizuna batuko diote, sarreran jasotako dirua ongintzara bideratuz. Aurten Nafarroako Elikagai Ban-



Trasteando taldeko kideak. UTZITAKOIA

kuari eta Accion contra el Hambre gobernuz kanpoko erakunde-ei (GKE) bideratuko zaie dirua. Orain arte emandako bederatzikontzertuetan 22.500 euro inguru jaso ditu taldeak, guztiak GKEei eman dietena. Martinezek gogorra ekarri du argitaratu dituzten hiru diskoetako dirua, 10.000 bat euro, Accion contra el Hambre erakundearendako izan zela. Egiten duten musika sozialaren zifrak dira horiek.

10 urte

Atzera begiratzuz, Martinezdioenez, Trasteandok "espazio bat bete du herrian". Eurek egiten dutena "musika sozial" gisa definitu du Martinezek. Hala, abenduero moduan Josefina Arregi klinikan eta Aita Barandiaran adinduen etxean kontzertu bana eskaini dute. Aurten bertan bitan kantatu dute Iruñeko kartzelan. Araian ia urtero elkartasun kontzertua egiten dute. Burlatan aritu dira aurten ere.

Jarritako helburuak betetzat jo ditu Martinezek. Atzera begirakotan Trasteandok argitaratutako bost diskoak gogora ekarri ditu. Haietako hiru elkartasunezkoak ziren eta beste bietan Altsasuko joan den mendeko 50eko eta 60ko herri kantuek jaso zituzten. "Altsasuko memoria inmateriala jaso dugu horrela" zehaztu digu Martinezek. Ez ditu ahaztu ere Luis Mari Lopezi eta Anjel Iriarteri, Potajeri, egindako omenaldiak.

ZAMA DOINUZ ARINDU



Dispertsioaren errealitatearen kontakizuna musikari ezagunez lagundua

ELKARTASUN JAIALDIA

URTARRILAK 10, IGANDEA
Etxarri Aranazko KULTUR ETXEAN
2 EMANALDI: 18:00 eta 20:00

SARRERAK 10€
ALDEZ AURRETIK EROSTEKO:

- Etxarri Aranazko Udaletxeko kultura bulegoan. (Asteleheneetik ostiralera - 09:00-13:00)
- On-line: www.etxarriaranatz.eus
- Xapatero eta Leku Ona tabernetan

ZATOZ!

ESNE BELTZA



OREKA TX



MELETA



MAIDER ANSA



RUPER ORDORIKA



NAROA GAINTZA



AITOR GOROSABEL SU TA GAR



VENDETTA



TAPIA ETA LETURIA



XABI BASTIDA



LAGUNTZALEA



ETXARRI ARANAZKO UDALA



ANTOLATZAILAK



ETXARRIKO





Raf Atxuri

astekoa

Eguberri. Urteberri

Urteko azken Guaixeko Astekoa-ri betegarria paratzen nator. Garai bateko ustezko elur xoragarrien gabezia, egun hauetako magia xuri goxoa berriz bizitzeko Hollywoodeko film bigun horietako bat ikusi beharrean gaude.

Gabonak eta bigunkeria, gainkontsumoa, familia nahiz lagun elkartzeko, oparigaraia eta afarien

aroa. Honi guztiari elkartasunaren azala gehitu behar diogu. Erromako Aita Santuak Urbi eta Orbe bedeinkatzen dituzte gizakiak oro Belen ondoan zartako galantak dabilzan bitartean, kolonoak kolonizatzaile eta palestinarak odol irensele.

Gabonak, orohar, Europa zahar berriari argiaren esnatzea eta

hotzaren etorrera dakartza. Olenzero, nonbait, egur supila besterik ez omen zen, hau da, argiaren eta beroaren ekarlea. Basotik etortzen zen zera hori, hastapenean egur enbor eder bat zena, panpin bihurtu zuten Bidasoa aldean duela ehundaka urte eta azkenean Papa Noel eta Santa Klausen festakide dugu saltokietan.

Kantauri Pirinioko bazter honetan Durangoko azoka egun berezi hauen mezulari bitxia dugu eta opariekin nola asmatu ez dakigun askori laguntza ederra ematen digu. Aurtengoarekin 50.a egin du Azokak eta arranditsuki ospatu dute/dugu Landako inguruan. Olentzerok bezala abiapuntu xumea izan zuen zera

horrek tamaina, itxura eta muina hartu eta egun Frankfurtikide dugu behinola nafarra zen Anboto azpiko hiri hartan.

Etor bitez beste 50 (edo 500 klima aldaketa errukior) eta Guai-xeren lagunek zein sakandarguztiek 2016 zorionsua eduki bezate.

Urte berri on!

barrutik kanpora

Aldaketa edukiz betetzeko garaia

Zazpi hilabete egin ditu Nafar Gobernu berriak. Nafarroa Garaian gobernu aldaketa eman da, baina "Vascuence"-aren legeak indarrean jarraitzen du, are gehiago, jarraituko du, eta euskaldunon hizkuntza eskubideen zonifikazioa ez da epe motzean desagertuko. Hala ere, gobernu berriak agintera iritsi denetik azkartasunez jokatzeko jakin duela onartu beharra dago, gaitzaren behintzat. Hizkuntza politikak sakoneko aldaketarik eragin

gabe, Euskararen Lege berri bat egiteko prozesurik abian jartzeko asmorik erakutsi gabe, eta aurreko legegintzaldi bukaeran onartu ziren hainbat neurri baliatuz, euskaltzale askok aldarrikatzen genuen aldaketa irudikatzen gaitasuna demostratu baitugu: D eredua, Euskalerrria irratitari lizentzia, diru-laguntzak, etab.

Aipatutako keinuak garrantzitsuak izan dira oso, urteetan administrazioen laguntzarik gabe euskaldunok zeharkatzen aritu

garen erdararen basamortuaren erdian, oasi bat topatu baitugu. Baina kontua da, hilabete hauetan egindako horretatik harago, ez dagoela euskaraz bizitzea posible egin dezakeen eta euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuko dizkigun Euskararen Lege berri bat ardatz izango duen hizkuntza politika bultzatzeko asmorik.

Biaukera ditugu: Euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuko dizkigun lege berri baten

babespian bidea egiten hastea, eta eskubide horiek guztiak urratzen dizkigun eta edozein neurri bermatzailearen aplikapenerako galga izango den "Vascuence"-aren legepean bidea egiten jarraitzea.

"Vascuence"-aren legeak 29 urte bete berri ditu. Euskaldunok aukera paregabea dugu urrats berri bat aurrera eramane eta pairatzen dugun lege arrotz eta diskriminatzailearen indargabetzea erdiesteko; hizkuntza politika

eragingarri propioa aldarrikatzearekin batera, Euskararen Lege berriaren oinarria jartzen hasteko.

Guztion artean, "aldaketa" edukiz betetzeko garaia da. "Aldaketaren Gobernu" izenarekin bere burua izendatzen duen gobernuari, erroko aldaketak exijitzeko garaia.

Ekin diezaiogun!

Sakanako EHE

Erredakzioaren oharra >>

Eguberritako oporrak direla eta Guaixe astekariaren aurtengo azken zenbakia gaur argitaratu da.

hara zer dien

Jostailuek ez dute sexurik

Aspaldi publizitatean Gabonak heldu direla iragartzen dabilta. Gabonetan publizitatearen indarra ikaragarria da, eta, zoritxarrez, sexuen hezkuntzan ez digute asko laguntzen. Emakume eta gizonen munduak erabat kontrakoak agertzen zaizkigu, emakumeentzat mundu arrosa bultzatuz eta gizonezkoentzat, aldiz, urdina. Gaurkoan etxeko txikien-

tzat bultzatzen dizkiguten ereduak aztertuko ditut.

Arratsalde bat telebista parean eseri, inguruko komertzioak aztertu eta gehiegi pentsatu gabe edonork asmatu dezake zein jostailu bideratzen diren neskenako eta zein mutilendako. Horrela, txikitatik bi mundu ezberdinetakoak izango bagina bezala ikustera behartzen gaituzte, nes-

kendako eta mutilendako jostailu ezberdinak iragarritik. Neska eta mutil izateko forma ugari daude eta horrelako mezuek gure izateko erak mugatzen dituzte. Zergatik mutil bati ezin zaizkio zaintzara bideratuta dauden jostailuak oparitu? Zeinek asmatu du eraikuntzako jolasetan neskek ez direla trebeak?

Eta bidaltzen dizkiguten mezuei

ZUZENKETA >>

Joan den astean Uharteko 3 fusilatuaren gorpuak Iberon bilatzen ari direla jakinarazi genuen. Zehaztu beharra dago Silverio Astiz Lakuntza Uharteko Arakilgo alkatea zela eraman zutenean. Bestalde, okertu eta hirugarren fusilatuaren abizena gaizki eman genuen. Honakoa da zuzena: Victor Martirena Irañeta.

ez badiegu jaramonik egiten? Neskak horrelakoak dira eta mutilak bestelakoak bezalako mezuek zapuzten baditugu eta mutil eta neska izateko era ezberdinak begiratzen hasiko bagina, jostailuak sexurik gabe begiratzeko lortuko genuke. Horrela, jostailuak ez neskekin ez mutilekin ez erlazionatzean, etxeko txikiak askoz gauza gehiagorekin dis-

frutatzen animatuko genituzke. Jostailu bakoitzak abilezi ezberdinak bultzatzen ditu, eta gurasoen esku dago erabakitzea zein abilezi bultzatu nahi dituen beraien seme-alabengan, bizitzarako ahalik eta abilezia gehiago edukiz autonomoagoak eta aberatsagoak garelako jakinda.

Olatz Berastegi

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hauteskunde orokorrak

Ahal Dugu gora, EH Bildu behera



>> Zuhatu

Arregi kontzeju buru

Zuhatzuko Kontzejuan Zuriñe Ormaetxea Padillari lekukoa hartuko dio Juan Pedro Arregi Sarasak. Arregi eroldako 27 zuhatzuarren 16 boto (%59,25) jaso zituen. Beste boto txuri bat ere izan zen. %62,96ko parte hartzea izan zen kontzeju hauteskundeetan.

>> Lizarragabengoa

Garmendiak segituko du

Altxorrotx hautagaitzako Jose Manuel Garmendia Lakuntza beste lau urtez izanen da Lizarragabengoa kontzeju burua. 34 lizarrengetarrek osatzen duten errolatik 18k eman zuten botoa (%52,94). Haietatik 12k Garmendiaren aldeko botoa (%66,66) eman zuten. Bos tek (%27,77) txuri bozkatu zuten eta boto bat baliogabea izan zen (%5,55).

15.601 sakandarrek botoa emateko aukera izan zuten igandean, duela lau urte baino 205 gutxiagok. 2011ko deialdiarekin alderatuta, parte hartzea %3,47 igo zen, %69,41 izanik. Beraz, hamar sakandarretatik zazpi botoa emateko eskubidea erabili zuten.

Sakandarren artean babes gehien lortu duen zerrenda EH Bildurena izan da, 2.816 boto (%26,25). Duela lau urteko emaitzekin alderatuta koalizioak 1.310 boto edo %13,89 galdu ditu. Boto horietako askok oraingoan Ahal Duguren alde egin dute. Maiatzeko foru hauteskundeekin alderatuta EH Bilduk deialdi honetan 806 boto-ko galera izan du.

Indarrez sartu da Podemos-Ahal Dugu eta sakandarren bigarren aukera bihurtu da, 2.227 (%20,76) botorekin. Hautagaitza morea EH Bildurengandik 589 botori gelditu da. Pablo Iglesiasenak udaberriko deialdian baino 946 boto gehiago eskuratu ditu. Parte hartzea igotzeak eta beste aukeren boto galerak (EH Bildurena bereziki, eta Geroa Bai eta PSN-rena, neurri txikiagoan) on egin dio hautagaitza moreari. Geroa Baik sakandarren gogoko hirugarren aukera izaten segitzen du 1.994 boto jaso ondoren (%18,59). Koalizioak aurreko deialdian baino 106 boto (%0,22) gehiago eskuratu ditu. Nafarroako Gobernua berritzeko hauteskundeekin alderatuta, berriz, Geroa Baik Sakanan 741 boto galdu ditu.

UPN-PP koalizioa bigarren indarra izatetik laugarren izatera pasa da lau urtetan 502 boto galdu ondoren. 1.673 sakandarrek (%15,59) babesa azaldu diote koalizioari. Erregionalisten eta popularren koalizioak Sakanan hauteskunde orokorretan segituan boto-



ak galtzen dituen hirugarren deialdia izan da. Pentsatzekoa da aurretik koalizioa bozkatu zuten batzuk Ciudadanosen alde egin dutela. Udaberrian banatuta aurkeztu ziren eta orduko bien emaitzen baturak orain baino 12 boto gehiago ematen ditu.

PSNk ibarreko zerrendan postu bat galdu du eta bosgarren indar bihurtu da. Sakandarren 1.077 boto (%10,04) jaso dituzte sozialistek, 2011n baino 312 gutxiago (%3,15). PSNk ibarrean foru hauteskundeetan baino 265 boto gehiago jaso ditu.

Ciudadanos alderdiaren alde 338 sakandarrek egin dute (%3,15). Riverarenak ibarreko seigarren aukera dira. Alderdi larankak udaberrian baino 217 boto gehiago jaso ditu. Izquierda-Ezkerrak sustatutako Orain Batera-ren zerrendaren alde 234 (%2,18) sakandarrek egin dute. Duela lau urte baino 96 gutxiago (%1,03ko galera). Koalizioak foru hauteskundeetan bai-

no 54 boto gehiago jaso ditu hauteskunde hauetan. Babes gutxien jaso dutenen artean, bestalde, aipagarria Sain-en jautzia 130 boto irabazita (142 eta %1,32).

Alderaketak

Nafarroako Gobernua babesten duten lau alderdiek (EH Bildu, Geroa Bai, Ahal Dugu eta I-E) 7.271 boto jaso dituzte, duela lau urte baino 927 gehiago. Udaberriko hauteskundeekin alderatuta 547 gutxiago.

EH Bildu eta Geroa Bairen artean 4.810 boto eskuratu dituzte, duela lau urte baino 1.204 gutxiago. Foru hauteskundeetako emaitzekin alderatuta 1.547 boto gutxiago. UPN-PP eta PSN blokeak beherako joerarekin segitzen du. Oraingoan 2.750 boto eskuratu ditu, aurrekoan baino 814 boto gutxiago, baina udaberrian baino 253 gehiago. Bi espazio horien artean sartu da Ahal Dugu.

+www.guaixe.eus

Datuak

Udalerrika lehen indarra

EH Bildu 8:

Lakuntza, Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Olatzagutia eta Ziordia.

UPN-PP 3:

Arakil, Irañeta eta Uhartarakil.

Ahal Dugu 2:

Irurtzun eta Altsasu.

Geroa Bai 1:

Arruazu.

EH Bildu / PP-UPN 1:

Boto berdinketa Iturmendin.

Parte hartzea gehien hazi duten herriak

1. Uhartarakil	7,62 puntu
2. Arakil	6,2 puntu
3. Altsasu	5,47 puntu

Parte hartzea jaitsi duten herriak

1. Bakaiku	4,61 puntu*
2. Arbizu	3,15 puntu*
3. Ziordia	0,73 puntu

*Parte hartzea jaitsita ere Sakanako batez besteko %69,41eko parte hartzea baino handiagoa dute.

Parte hartze handieneko udalerriak

1. Bakaiku	%76,55
2. Arruazu	%74,42
3. Arakil	%72,92

Abstentzio handieneko herriak

1. Ergoiena	%37,46
2. Olatzagutia	%36,58
3. Irañeta	%32,17

Boto txuri gehien izan duten herriak

1. Iturmendi	%3,27
2. Irañeta	%2,06
3. Urdiain	%1,67

Boto baliogabe gehien izan duten herriak

1. Uhartarakil	%2,56
2. Olatzagutia	%1,48
3. Bakaiku	%1,35

GANUZA ANAIK
www.cocinasganuza.com
Sukaideko altzari lantegiak
Bainu gelako altzariak | Horma armairuak | Etxetresna elektrikoak

Eguberri on!

Finantzatzeko aukera

c.ganuzacocinasganuza.com
Zumudiñeta industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranatz


Unamuno

TRANSGENIKORIK GABE

Euskal Herriko artisau produktuekin eginiko OPARI SASKIAK

948 562 829 • Faxa: 948 563 002 • Ondarria industrialdea • ALTSASU

Hauteskunde orokorrak



SAKANAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Hauteskunde errolda	15.601		15.806		
Parte hartzea	10.829	%69,41	10.422	%65,94	
Abstentzioa	4.772	%30,59	5.384	%34,06	
Boto baliogarriak	10.729	%99,08	10.280	%98,64	
Boto baliogabeak	100	%0,92	142	%1,36	
Zerrendei emandakoak	10.623	%98,10	10.151	%97,40	
Boto zuriak	106	%0,98	129	%1,24	
HAUTAGAITZA					
Ahal dugu	3.240	%30,20			
Ciudadanos	2.209	%20,59			
EH Bildu	1.807	%16,84	Amaiur	1.871	%18,20
Geroa Bai	1.473	%13,73	Geroa Bai	1.752	%17,04
IU-Batzarre-UpeC	1.067	%9,95	Izquierda-Ezkerra	1.412	%13,74
Libertate Nafarra	336	%3,13			
PSOE	168	%1,57	PSOE	174	%1,69
Recortes Cero-Berdeak	44	%0,41			
SAIN	21	%0,20	SAIN	8	%0,08
UPN-PP	11	%0,10	UPN-PP	55	%0,54
UPyD	3	%0,03	UpyD	18	%0,18
PACMA	0	%0,00			
			Equo	60	%0,58
			Pirata	50	%0,49
			PUM+J	18	%0,18
			U.C.E	11	%0,11

ALTSASUKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Hauteskunde errolda	5.721		5.788		
Parte hartzea	3.986	%69,67	3.716	%64,20	
Abstentzioa	1.735	%30,33	2.072	%35,80	
Boto baliogarriak	3.946	%99,00	3.637	%97,87	
Boto baliogabeak	40	%1,00	79	%2,13	
Zerrendei emandakoak	3.919	%98,32	3.589	%96,58	
Boto zuriak	27	%0,68	48	%1,29	
HAUTAGAITZA					
Ahal dugu	922	%23,37			
Geroa Bai	668	%16,93	Geroa Bai	640	%17,60
EH Bildu	636	%16,12	Amaiur	1.045	%28,73
UPN-PP	632	%16,02	UPN-PP	855	%23,51
PSOE	585	%14,83	PSOE	771	%21,20
Ciudadanos	167	%4,23			
SAIN	139	%3,52	SAIN	4	%0,11
IU-Batzarre-UpeC	124	%3,14	Izquierda-Ezkerra	173	%4,76
PACMA	24	%0,61			
Recortes Cero-Berdeak	12	%0,30			
UPyD	7	%0,18	UpyD	44	%1,21
Libertate Nafarra	3	%0,08			
			Equo	17	%0,47
			Pirata	30	%0,82
			PUM+J	9	%0,25
			U.C.E	1	%0,03

ARAKILGO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Hauteskunde errolda	768		751		
Parte hartzea	560	%72,92	501	%66,71	
Abstentzioa	208	%27,08	250	%33,29	
Boto baliogarriak	560	%100,00	495	%98,80	
Boto baliogabeak	0	%0,00	6	%1,20	
Zerrendei emandakoak	555	%99,11	483	%96,41	
Boto zuriak	5	%0,89	12	%2,40	
HAUTAGAITZA					
UPN-PP	143	%25,54	UPN-PP	158	%31,92
Ahal dugu	125	%22,32			
EH Bildu	119	%21,25	Amaiur	154	%31,11
Geroa Bai	84	%15,00	Geroa Bai	90	%18,18
PSOE	39	%6,96	PSOE	38	%7,68
IU-Batzarre-UpeC	19	%3,39	Izquierda-Ezkerra	22	%4,44
Ciudadanos	15	%2,68			
PACMA	6	%1,07			
Recortes Cero-Berdeak	3	%0,54			
Libertate Nafarra	1	%0,18			
SAIN	1	%0,18	SAIN	2	%0,40
UPyD	0	%0,00	UpyD	5	%1,01
			Equo	6	%1,21
			Pirata	2	%0,40
			PUM+J	5	%1,01
			U.C.E	1	%0,20

ARBIZUKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%	Kopurua	%	
Hauteskunde errolda	838		824		
Parte hartzea	595	%71,00	611	%74,15	
Abstentzioa	243	%29,00	213	%25,85	
Boto baliogarriak	589	%98,99	609	%99,67	
Boto baliogabeak	6	%1,01	2	%0,33	
Zerrendei emandakoak	582	%97,82	607	%99,35	
Boto zuriak	7	%1,18	2	%0,33	
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	253	%42,95	Amaiur	394	%64,70
Geroa Bai	179	%30,39	Geroa Bai	129	%21,18
Ahal dugu	68	%11,54			
UPN-PP	46	%7,81	UPN-PP	60	%9,85
Ciudadanos	13	%2,21			
PSOE	12	%2,04	PSOE	13	%2,13
IU-Batzarre-UpeC	5	%0,85	Izquierda-Ezkerra	7	%1,15
PACMA	4	%0,68			
Recortes Cero-Berdeak	1	%0,17			
SAIN	1	%0,17			
UPyD	1	%0,17	UpyD		
Libertate Nafarra	0	%0,00			
			Equo	2	%0,33
			Pirata	2	%0,33

Hauteskunde orokorrak

ARRUAZUKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	86		94		
Parte hartzea	64	%74,42		68	%72,34
Abstentzioa	22	%25,58		26	%27,66
Boto baliogarriak	64	%100,00		68	%100,00
Boto baliogabeak	0	%0,00		0	%0,00
Zerrendei emandakoak	64	%100,00		68	%100,00
Boto zuriak	0	%0,00		0	%0,00
HAUTAGAITZA					
Geroa Bai	28	%43,75	Geroa Bai	21	%30,88
EH Bildu	24	%37,50	Amaiur	38	%55,88
Ahal dugu	7	%10,94			
PSOE	2	%3,13	PSOE	2	%2,94
UPN-PP	2	%3,13	UPN-PP	5	%7,35
UPyD	1	%1,56			
Ciudadanos	0	%0,00			
IU-Batzarre-UpeC	0	%0,00	Izquierda-Ezkerra		
Libertate Nafarra	0	%0,00			
PACMA	0	%0,00			
Recortes Cero-Berdeak	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00			
			Pirata	2	%2,94

BAKAIKUKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	290		276		
Parte hartzea	222	%76,55		224	%81,16
Abstentzioa	68	%23,45		52	%18,84
Boto baliogarriak	219	%98,65		223	%99,55
Boto baliogabeak	3	%1,35		1	%0,45
Zerrendei emandakoak	219	%98,65		223	%99,55
Boto zuriak	0	%0,00		0	%0,00
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	92	%42,01	Amaiur	119	%53,36
Geroa Bai	50	%22,83	Geroa Bai	46	%20,63
UPN-PP	40	%18,26	UPN-PP	45	%20,18
Ahal dugu	24	%10,96			
PSOE	5	%2,28	PSOE	7	%3,14
Ciudadanos	3	%1,37			
IU-Batzarre-UpeC	3	%1,37	Izquierda-Ezkerra	3	%1,35
Libertate Nafarra	1	%0,46			
PACMA	1	%0,46			
Recortes Cero-Berdeak	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00			
UPyD	0	%0,00	UpyD	1	%0,45
			Equo	2	%0,90

ERGOIENAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	347		365		
Parte hartzea	217	%62,54		227	%62,19
Abstentzioa	130	%37,46		138	%37,81
Boto baliogarriak	217	%100,00		224	%98,68
Boto baliogabeak	0	%0,00		3	%1,32
Zerrendei emandakoak	217	%100,00		221	%97,36
Boto zuriak	0	%0,00		3	%1,32
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	75	%34,56	Amaiur	127	%56,70
Geroa Bai	62	%28,57	Geroa Bai	45	%20,09
Ahal dugu	38	%17,51			
UPN-PP	24	%11,06	UPN-PP	31	%13,84
PSOE	13	%5,99	PSOE	15	%6,70
Ciudadanos	3	%1,38			
IU-Batzarre-UpeC	2	%0,92	Izquierda-Ezkerra	2	%0,89
Libertate Nafarra	0	%0,00			
PACMA	0	%0,00			
Recortes Cero-Berdeak	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00			
UPyD	0	%0,00			
			Equo	1	%0,45

ETXARRI ARANAZKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	1.935		1.949		
Parte hartzea	1.389	%71,78		1.369	%70,24
Abstentzioa	546	%28,22		580	%29,76
Boto baliogarriak	1.380	%99,35		1.361	%99,42
Boto baliogabeak	9	%0,65		8	%0,58
Zerrendei emandakoak	1.361	%97,98		1.350	%98,61
Boto zuriak	19	%1,37		11	%0,80
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	603	%43,70	Amaiur	837	%61,50
Geroa Bai	287	%20,80	Geroa Bai	237	%17,41
Ahal dugu	237	%17,17			
UPN-PP	162	%11,74	UPN-PP	181	%13,30
PSOE	40	%2,90	PSOE	61	%4,48
Ciudadanos	17	%1,23			
IU-Batzarre-UpeC	10	%0,72	Izquierda-Ezkerra	17	%1,25
PACMA	3	%0,22			
Recortes Cero-Berdeak	1	%0,07			
UPyD	1	%0,07	UpyD	7	%0,51
Libertate Nafarra	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00			
			Equo	4	%0,29
			Pirata	5	%0,37
			PUM+J	1	%0,07

IRANETAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	143		145		
Parte hartzea	97	%67,83		89	%61,38
Abstentzioa	46	%32,17		56	%38,62
Boto baliogarriak	97	%100,00		89	%100,00
Boto baliogabeak	0	%0,00		0	%0,00
Zerrendei emandakoak	95	%97,94		87	%97,75
Boto zuriak	2	%2,06		2	%2,25
HAUTAGAITZA					
UPN-PP	31	%31,96	UPN-PP	37	%41,57
EH Bildu	19	%19,59	Amaiur	26	%29,21
Geroa Bai	17	%17,53	Geroa Bai	19	%21,35
Ahal dugu	15	%15,46			
Ciudadanos	8	%8,25			
Libertate Nafarra	2	%2,06			
IU-Batzarre-UpeC	1	%1,03	Izquierda-Ezkerra	1	%1,12
SAIN	1	%1,03			
UPyD	1	%1,03			
PACMA	0	%0,00			
PSOE	0	%0,00	PSOE	2	%2,25
Recortes Cero-Berdeak	0	%0,00			
			Equo	1	%1,12
			PUM+J	1	%1,12

IRURTZUNGO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	1.559		1.590		
Parte hartzea	1.095	%70,24		1.054	%66,29
Abstentzioa	464	%29,76		536	%33,71
Boto baliogarriak	1.084	%99,00		1.031	%97,82
Boto baliogabeak	11	%1,00		23	%2,18
Zerrendei emandakoak	1.076	%98,26		1.012	%96,02
Boto zuriak	8	%0,73		19	%1,80
HAUTAGAITZA					
Ahal dugu	296	%27,31			
UPN-PP	206	%19,00	UPN-PP	296	
EH Bildu	204	%18,82	Amaiur	285	%27,64
PSOE	149	%13,75	PSOE	158	%15,32
Geroa Bai	130	%11,99	Geroa Bai	193	%18,72
Ciudadanos	49	%4,52			
IU-Batzarre-UpeC	27	%2,49	Izquierda-Ezkerra	47	%4,56
PACMA	11	%1,01			
UPyD	4	%0,37	UpyD	16	%1,55
Libertate Nafarra	0	%0,00			
Recortes Cero-Berdeak	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00	SAIN	3	%0,29
			Equo	7	%0,00
			Pirata	3	%0,29
			PUM+J	1	%0,68
			U.CE	3	%0,29

Hauteskunde orokorrak

ITURMENDIKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	310		319		
Parte hartzea	214	%69,03		203	%63,64
Abstentzioa	96	%30,97		116	%36,36
Boto baliogarriak	213	%99,53		199	%98,03
Boto baliogabeak	1	%0,47		4	%1,97
Zerrendei emandakoak	206	%96,26		198	%97,54
Boto zuriak	7	%3,27		1	%0,49
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	52	%24,41	Amaiur	78	%39,20
UPN-PP	52	%24,41	UPN-PP	65	%32,66
Ahal dugu	39	%18,31			
Geroa Bai	31	%14,55	Geroa Bai	33	%16,58
PSOE	18	%8,45	PSOE	17	%8,54
Ciudadanos	8	%3,76			
IU-Batzarre-UpeC	4	%1,88	Izquierda-Ezkerra	2	%1,01
UPyD	2	%0,94	UpyD	1	%0,50
Libertate Nafarra	0	%0,00			
PACMA	0	%0,00			
Recortes Cero-Berdeak	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00	SAIN	1	%0,50
			Pirata	1	%0,50

OLAZTIKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	1.170		1.229		
Parte hartzea	742	%63,42		745	%60,62
Abstentzioa	428	%36,58		484	%39,38
Boto baliogarriak	731	%98,52		740	%99,33
Boto baliogabeak	11	%1,48		5	%0,67
Zerrendei emandakoak	721	%97,17		735	%98,66
Boto zuriak	10	%1,35		5	%0,67
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	213	%29,14	Amaiur	286	%38,65
Ahal dugu	159	%21,75			
UPN-PP	108	%14,77	UPN-PP	147	%19,86
Geroa Bai	102	%13,95	Geroa Bai	116	%15,68
PSOE	97	%13,27	PSOE	148	%20,00
Ciudadanos	20	%2,74			
IU-Batzarre-UpeC	16	%2,19	Izquierda-Ezkerra	21	%2,84
PACMA	3	%0,41			
Libertate Nafarra	2	%0,27			
Recortes Cero-Berdeak	1	%0,14			
SAIN	0	%0,00	SAIN	1	%0,14
UPyD	0	%0,00	UpyD	6	%0,81
			Equo	5	%0,68
			Pirata	2	%0,27
			PUM+J	1	%0,14
			U.CE	2	%0,27

URDIANGO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	531		553		
Parte hartzea	355	%66,85		360	%65,10
Abstentzioa	176	%33,15		193	%34,90
Boto baliogarriak	351	%98,87		359	%99,72
Boto baliogabeak	4	%1,13		1	%0,28
Zerrendei emandakoak	345	%97,18		356	%98,89
Boto zuriak	6	%1,69		3	%0,83
HAUTAGAITZA					
EH BILDU	120	%34,19	Amaiur	182	%50,70
GEROA BAI	99	%28,21	Geroa Bai	82	%22,84
AHAL DUGU	63	%17,95			
UPN-PP	32	%9,12	UPN-PP	53	%14,76
PSOE	18	%5,13	PSOE	29	%8,08
CIUDADANOS	6	%1,71			
IU-BATZARRE-UPEC	6	%1,71	Izquierda-Ezkerra	5	%1,39
PACMA	1	%0,28			
LIBERTATE	0	%0,00			
NAFARRA	0	%0,00			
RECORTES CERO-BERDEAK	0	%0,00	UpyD	1	%0,28
SAIN	0	%0,00	Equo	3	%0,84
UPYD	0	%0,00	Pirata	1	%0,28

LAKUNTZAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	934		939		
Parte hartzea	649	%69,49		648	%69,01
Abstentzioa	285	%30,51		291	%30,99
Boto baliogarriak	647	%99,69		646	%99,69
Boto baliogabeak	2	%0,31		2	%0,31
Zerrendei emandakoak	642	%98,92		632	%97,53
Boto zuriak	5	%0,77		14	%2,16
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	226	%34,93	Amaiur	329	%50,93
Geroa Bai	155	%23,96	Geroa Bai	134	%20,74
Ahal dugu	110	%17,00			
UPN-PP	68	%10,51	UPN-PP	70	%10,84
PSOE	52	%8,04	PSOE	64	%9,91
Ciudadanos	11	%1,70			
IU-Batzarre-UpeC	7	%1,08	Izquierda-Ezkerra	15	%2,32
PACMA	6	%0,93			
Recortes Cero-Berdeak	3	%0,46			
Libertate Nafarra	2	%0,31			
UPyD	2	%0,31	UpyD	6	%0,93
SAIN	0	%0,00	SAIN		
			Equo	9	%1,39
			Pirata	1	%0,15
			U.CE	4	%0,62

UHARTE ARAKILGO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	654		652		
Parte hartzea	430	%65,75		379	%58,13
Abstentzioa	224	%34,25		273	%41,87
Boto baliogarriak	419	%97,44		373	%98,42
Boto baliogabeak	11	%2,56		6	%1,58
Zerrendei emandakoak	412	%95,81		365	%96,31
Boto zuriak	7	%1,63		8	%2,11
HAUTAGAITZA					
UPN-PP	95	%22,67	UPN-PP	119	%31,90
Ahal dugu	92	%21,96			
EH Bildu	89	%21,24	Amaiur	123	%32,98
Geroa Bai	74	%17,66	Geroa Bai	69	%18,50
PSOE	33	%7,88	PSOE	38	%10,19
Ciudadanos	12	%2,86			
IU-Batzarre-UpeC	6	%1,43	Izquierda-Ezkerra	12	%3,22
PACMA	5	%1,19			
Recortes Cero-Berdeak	3	%0,72			
UPyD	3	%0,72	UpyD	1	%0,27
Libertate Nafarra	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00	SAIN	1	%0,27
			Equo	1	%0,27
			Pirata	1	%0,27

ZIORDIKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK					
KONGRESUA	2015		2011		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Hauteskunde errolda	315		332		
Parte hartzea	214	%67,94		228	%68,67
Abstentzioa	101	%32,06		104	%31,33
Boto baliogarriak	212	%99,07		226	%99,12
Boto baliogabeak	2	%0,93		2	%0,88
Zerrendei emandakoak	209	%97,66		225	%98,68
Boto zuriak	3	%1,40		1	%0,44
HAUTAGAITZA					
EH Bildu	91	%42,92	Amaiur	103	%45,58
Ahal dugu	32	%15,09			
UPN-PP	32	%15,09	UPN-PP	53	%23,45
Geroa Bai	28	%13,21	Geroa Bai	34	%15,04
PSOE	14	%6,60	PSOE	26	%11,50
Ciudadanos	6	%2,83			
IU-Batzarre-UpeC	4	%1,89	Izquierda-Ezkerra	3	%1,33
Recortes Cero-Berdeak	1	%0,47			
UPyD	1	%0,47	UpyD	4	%1,77
Libertate Nafarra	0	%0,00			
PACMA	0	%0,00			
SAIN	0	%0,00			
			Equo	2	%0,88

SAKANA



Duela bi asteko bileran 20 bat sakandar elkartu ziren.

Amiantoak kaltetutakoak elkarte nafarrerantz

Helburu horrekin pausoak ematen ari dira hainbat sakandar. 20 bat izan ziren hilaren 11n jarritako deialdiari erantzun ziotenak. Euskal Autonomia Elkarte amiantoak kaltetutakoak biltzen dituen Asvimiae elkarte Jesus Uzku-dunek antolakuntzari buruzko hainbat argibide eman zizkien. Aldi berean, Asvimiae sakandarrak ilbeltzaren 15ean eginen duen batzarrera gonbidatu ditu. Uzku-dunek, hala ere, argitu digu dirulaguntzak jaso edo beste edozertarako elkarte Nafarroan legez-tatzea ezinbestekoa dela.

Amiantoak eragindako gai-

tzen ondorioei elkarrekin aurre eginda helburuak lortzeko aukera gehiago izanen dituztela uste dute elkartearen sustatzaileek. Uzku-dunek bileran gaztigatu zenez, amianto erabili duten enpresek hura erabili duten langileen zerrendak osatu behar dituzte. "Batuetan ez da betetzen edo ez dira amiantoarekin lan egin duten langile guztiak agertzen. Beraz, norbera arduratu behar da zerrenda horretan dagoela ziurtatzeaz. Horrek gaitzak justifikatzen laguntzen du". Horretarako, Lan Osasunerako Institutura jo beharra dago. Uzku-

Filma
Ilbeltzaren 22an, Altsasuko Gure Etxea eraikinean *La plaza de la música* filma proiektatuko dute. Juan Migel Rodriguezek zuzendu duen filma horretan amiantoari lotutako munduan barnako hainbat istorio jasotzen dira.

dunek gaztigatu zenez, "lanetik eratorritako gaitzek ez dute epe mugarik" eta bere senarraren lanerako jantziak garbituz gaixotutako 81 urteko emakumearen adibidea jarri zuen.

Ihobar

Donezteberen omenezko jaiak

Egun, abenduaren 26an ospatzen dute Ihabarren Doneztebe eguna. Garai batean herriko jai nagusiak ospatzen zituzten data horren bueltan

Maialen Huarte Arano

Herriko festa nagusiak abenduan izaten zituzten ihabartarrek. Doneztebe dute herriko zaindaria eta haren eguna abenduaren 26 da. Hori horrela, egun horren bueltan jai handiak ospatzen zituzten herrian, santuaren omenezko mezarekin batera. Orain ere egun hori gogoratzen da. Abenduaren 26ak jai eguna izaten segitzen du herritarrendako. Meza nagusia antolatzen da eta egun osoko egitaraua ere bai. Haurrendako eta helduendako bana bazkari prestatzen dituzte. Aurten gainera, haurrendako tailerrak ere izanen dira. Kantuan arituko dira bazkal ostean eta dantzaldia ere izanen dute. Larunbatarekin tokatu da aurten Doneztebe eguna.

Horren aurretik baina, Olenzero ere herrira iritsiko da. Gurdigainean, ikazkina Beriain menditik behera iristen da. Arratsaldeko sei terdiak aldera egiten du bisita herrian. Gurdia bete opari jaisten da. Laguntzaileak ere bada-kartza, menditik Ihabarrerainoko bidea argitzen dizkioten lagu-



Doneztebe ospakizunean ez da bazkaririk falta. ARTXIBOA

nak, suziak eskuetan dituztela. Txistuaren erritmoan, Olenzero jendea kantuan entzun nahi izaten du. Ihabar herria zeharkatzeko du, kalez kale kalejira giroan. Plazara iritsitakoan, opariak banatuko ditu.

Gabonetarako ere ez dute egitarau makala Ihabarren. Badira urte batzuk zenbait ekimen antolatzen direla. Pelikulak eta dokumentalak jartzen dira herriko

etxean ikusgai. Hala, hilaren 25ean Invisibles dokumentala izanen da, 20:00ean. Ilbeltzaren lehenarekin *euskara 365 egun* bideo proiektzioa eta *Relatos Salvajes* filma ikusteko aukera, 20:00ean. Ilbeltzaren 3an talo tailerra izanen da 18:30ean. Ilbeltzaren 6an *Minerita* eta *Humana* dokumentalak izanen dira. Azkenik, hilaren 9an larunbatarekin *Del Reves* pelikula jarriko dute.



Guaixe fundazioa; izen berria, egiteko bera

Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen dituen erakundeak izena aldatu du, Bierrik fundaziotik Guaixe fundaziora

Astelehenaz geroztik Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen dituen fundazioak Guaixe izena du, Guaixe fundazioa. Erakundeak argitaratzen duen aste-kariaren izen bera, Guaixe, hartu du bere eginkizuna zein den argi azaltzeko. Izan ere, Guaixe astekariaren eguneroko kudeaketan makina bat tramite egin behar dira, bai administrazioen aurrean, bai hornitzaileekin, bai enpresa edo establezimenduekin... eta

aurretik zegoen izenak nahasmena eragiten zien bati baino gehiagori.

Horregatik, fundazioko patronatuak izena aldatzea erabaki zuen. Hala, 1994tik Sakanan euskarazko hedabideen sustapenarekin identifikatu den izena, Bierrik, erabiltzeari utziko diogu. Lehenik Bierrik elkarte izan zen. 2008an elkarteak egitura juridikoa aldatu eta Bierrik fundazioa izatera pasazen. Orain, identifikazio hobeko bat izateko, fundazioak izena aldatu eta Guaixe fundazioa izena hartu du.



Beleixeguaixe txartelak bi egonaldi oparitu ditu



Txartelak 85 establezimendutan abantailak eskaintzen ditu.

Eguberri aurreko erosketak Sakanan eta Beleixeguaixe txartelarekin egin dituztenek azken hiru asteetan zozketa batean parte hartzeko aukera zuten. Horretarako fitxa batean erosketak egindako establezimenduetako hiru zigilu jaso behar ziren. Hala egin du M^a Cruz Mundiñano altsasuarra eta Nekaturrek, Euskadiko nekazal turismo elkarteak, emandako bi lagunendako 2 gaueko egonaldia irabazi du. Floren Beraza irintarrak, berriz, Artazako kanpinean 2 lagunendako gaua txabola batean pasatzeko aukera eta Finlandia saioa eskuratu ditu.

Beleixeguaixe txartelak Sakanako 85 bat establezimenduetan urte guztian abantailak eskaintzen ditu. Haren bidez ibarrean erosketak egitea sustatu nahi da eta, horrekin, dendak eta beste establezimenduak zabalik segitzea lagundu nahi da. Horrela, herriek bizia baitute. Txartela eskuratu nahi dutenek 948 564 275 telefonora hots egin edo www.guaixe.eus web orrian sartu daitezke. Urteko 50 euroko ekarpenaren truke txartelaren abantaila guztiak izanen dituzte eta, gainera, Guaixe astekaria etxean jasoko dute.



>> Irurtzun

Haurraren garapena lantzeko beste modu bat

Maialen Uharte Arano

Eskola txikia da Amalur. Montessori hezkuntza ereduarekin ari dira aurrera egiten. Haurraren jokaerak eta jarrerak behatzetik laguntzen zaio umeari bere garapenean.

Erga mendiaren magalean kokatua dago Amalur. Irurtzun eta Aizkorbe artean sortu dute eskola. Haur hezkuntzako bost neskatari dira bertan ikasten. Eskolaren berezitasun nabarmenena ereduari lotutakoa da: haur horiek Montessori sistemarekin ari dira hezten. Italiatik dator haurrak hezteko modu hori, 1912an Maria Montessorik berak erabiltzen zituen moduetatik. Hezkuntza eredu hori errespetuan oinarritzen da: haurraren beharrak zeintzuk diren aztertu eta behar horiek asetzeko bidea erakusten zaie Amalurren ere. Denek ez dute erritmo berbera, ez eta jakin-min berberak ere, hortaz, gakoa bakoitzari berea eskaintzea da. Nola egiten da hori? Bada, ume bakoitzaren jokaerak eta jarrerak ezagutu eta aztertu, egunerokoan behatu eta ondoren haurrari jakin-nahi horiek ase ahal dizkion aukerak eskaini.

9:30etatik 10:00etara bitartean ditu ateak zabalik Amalurrek. Horixe da haurrak eskolara iristeko duten tartea. Ordu erdiko tartea dute, norberak goizean duen lasaitasunaren arabera molda daitezten. "Batzuetan ohetik altxatzea errazagoa da besteetan baino eta eskolara sartzeko aukera hori izateak eguna lasaitasunez hartzeko aukera ematen du", azaldu du Cris Mata eskolako sortzaile eta amak.



Amalur eskolako ikasleetako batzuk gelan. UTZITAKOIA

Askatasun mugatua da, "goiz parte osoa eskainiko balitz haurrak nahi duen unean etortzeko neurrigabekeria izanzen litzateke, baina ordu erdiko tarteak bestelako erritmo bat eramateko modua eman diezazuke", azaldu du. Norberaren erritmoak errespetatzen dira hasteko, gero, komunitatearenak errespetatu ahal izateko. Horretan oinarritzen da, besteak beste, Montessori eredu.

Ezagutzarako aukera anitz

Haurraren jakinduria txoko desberdinen bidez garatzen da. Unean-unean umeari kitzika sortzen dion hori lantzeko aukera eskaintzen zaio. Horretarako gidari izanzen duen hezitzailea dute eskolan, Garoa Gartziaandia. Haurrak ezagutzen ditu Gartziaandiak. Egune-

ro egoten da beraiekin. Egunero behatzen ditu eta badaki zer ikasi nahi duten, zer probatu edo zer ezagutu nahi duten. Haur bat sagar batekin ikusten baldin badu, adibidez, motrizitatea lantzeko txokora joateko gonbitea egingen dio. Han, sukaldaritza izanzen du probatzeko. Edo josten, garbitzen, intxaurrak zuritzen ikasi dezake. Neskato bat eskolan dauden objektuak kontatzen sumatzen badu, honi zentzumenen txokoa aurkeztuko dio: bertan gorputz geometrikoak, koloretako boteak, instrumentu kromatikoa... izanzen ditu pisuak aztertzeko, ukimena modu praktikoan lantzeko eta hizkuntza lantzeko.

Matematiketako txokoa ere badute. Zerbakiak memoriari ikasteko zentzumenen bidez ikastera

pasa dira Amalurren. Bat zenbakiaren ahoskera entzuteaz gain, bat zenbakia eskuekin ukitu ere egin dezakete. Egurrez egindako material ugari dituzte. Modu horretan, bat zenbakia esatean ukitu duten horrekin erlazionatzen dute.

Euskaraz mintzo dira Amalurren. Baina ez euskaraz bakarrik. Hizkuntzak ikasteko txokoa ere badutela. Kantuaritzen dira, letrak ikasten dituzte, elkarrizketak sortzen dituzte, ipuinak sortzen dituzte... eta nahi izanez gero, gaztelaniaz eta ingelesez egiteko aukera ere badute. Txoko kulturean berriz, esperientziak lantzen dituzte. Biologia, kimika... zeharka ikasten dituzte. Badituzte munduko mapak ere, herrialdeak ikasteko. Mintzaera ere lan-

tzen dute. Norberak sentitzen duena kaleratzeko gunea da. Margoeekin, kantuekin, plastilinekin, buztinarekin... sorkuntza lantzen da.

Interesari erantzuna eman nahia

Haurrek berez dute Mundua ezagutzeko irrika. Hortik abiatuta, Montessori ereduaren ohiko ikastetxeek eskaintzen dutenetik aldentzen da. Ez erabat, baina haurraren hezkuntza beste modu batean garatzen da. Bata zein bestea dira egokiak. Batean zein bestean lortuko da gizakiak garatzea. Amalurren haurrari behatu eta honek duen interes horri eman nahi zaio erantzuna irakasterako orduan. Ume bakoitza bat eta bakarra da, hortaz, norberaren beharretara egokitzen dira. Ez dago irakaslerik, gida dute eskolan. Gida horrek ez du irakasten baizik, haurrak dira ikasten dutenak. Baita gidak berak ere. Esku-hartze kontzientea bat dago gidaren eta haurren artean. Gidak behatu egiten ditu, norberaren jokaera eta jarrerak apuntatu egiten ditu; proposamenak eginez erantzun bat ematen zaie, nahi duten hori ikas dezaten; haurra bera beste behin miatu ondoren, hezitzaileak umeak proposamen horren aurrean izan duen erantzuna berriz apuntatu egiten du. Haurrek ezagutzarako beharra dute, horregatik, Montessori ereduaren erabilien esperientzietan agerian geratu da, haurrek curriculum osatzea lortzen dutela. Hau da, ez direla tematzen txoko batean bakarrik egoten, besteak ere ezagutu nahi dituztela.

Bost familiaren lana, aurrera

Matrikula bakarra ordaintzen da, haur bakoitzeko (300 euro) eta baita hilabeteko kuota ere. Hileko ordaintzen duten hori gainera, modu desberdinetan ordain dezakete: gurasoak Amalur eskolan aktiboki ari badira lanean, material salmentan... 150 euro ordaintzeko aukera eskaintzen zaie. Gurasoek guztiz parte hartzen ez badute ordea, zertxobait gehiago, 200 euro hilean. Amalurera iki zuten gurasoek argi dute ez dela eskola elitista bat. Modu asko dago hilabeteko kuota hori ordaindu ahal izateko. Adibidez, Montessori materialaren salmentarekin kuota murriztea lor daiteke.



Urrats handiegia emateari beldur

Haurrak jaiotzen direnetik hiru urte betetzen dituzten arte, gurasoen altzoan izaten dira. Batean, hiru urte betetzen dituztelarik ikastetxe handi batera egin behar izaten dute salto. Magaletik "kaosera" ia konturatu gabe. Beldurra sortu zitzaizen Amalur eskolara zuten gurasoei. Eta horregatik hasi ziren eskola sortzeko ideiarekin. Ez zen lan erraza izan. Denbora asko pasa dute hausnartzen, mintzartzen, ideiak mahai gainean jartzen, ados jartzen eta erabakitzen. Gauza batek bestea dakarren moduan, ideia eraikitzen hasi ziren. Pedagogikoki zein behar zituzten aztertu eta behar horiek nola bete zitzaizkion pentsatu ondoren (urtebeteko lana), leku fisikoaren bila hasi ziren. Gero hezkuntza eredu zein izanzen zehazten joan ziren eta, ondoren, baliabide ekonomikoaren bila hasi ziren. Montessoriren ereduaren ezartzearekin batera, haren materialaren salmentarekin lortu dute finantzaketa.

Familien parte hartzea

Amalurren garrantzitsua da gurasoen parte hartzea. Eskolan dauden bitartean Garoa Gartziaandiarekin daude, bera gizarte hezitzailea da eta haurrak gidatzeko ardura du. Gurasoek aldiz, proposamenak egin ditzakete. Tailer ezberdinak edo ateraldiak proposatu ahal dituzte ezagutzaren horiek zabaltzeko. Mendiateraldi bat esaterako, ingurumenarekin hartu-eman izan eta animaliak ezagutzeko. Edo eskulan tailerra. Interesgarri zaiena aurkez dezakete.



Errespetu osoa "ohiko" ikastetxeetako irakasleekin

Amalur eskola sortzeko ideia izan zutenetik gurasoek argi dute ez daudela "ohiko" ikastetxeetako irakasleen metodoen aurka. Hezkuntza ereduak arazo "estrukturala" duela uste dute. "Aurrera pauso handiak eman dira eta irakasle bikain asko dago ohiko eredu horietan lanean", uste du Alfredo Prieto Amalur eskolako sortzaile eta gurasoak. Baina oraindik asko falta da hezkuntza sistemarekin erabat ados egoteko. Horregatik Amalurren haurraren garapena beste modu batean lortu nahi dute. Urte askotako lanaren emaitza da Amalur. Gurasoek lasaitasun osoz uzten dituzte haurrak eskolan. Badakitelako errespetuan, espazio harmoniko batean, gune lasai batean, konfiantzako toki batean daudela.



Etorkizuna sortzeko

Oraindik ez dira etorkizunaz hitz egiten gehiegi aritu. Amalurrek haur eskolako tartea baino ez du, oraingoz. Eta bertan diren bost neskatoek sei urte betetzen dituztenean, zer egingen dute? Hortxe dago gakoa eta hortiketorriko da erronka. Oraindik ez dute horretaz serioski jarduteko aukerarik izan, baina proiektuarekin aurrera segitzeko aukerak aztertuko dituztela diote. Hau da, haur hezkuntzako etapa betetzeaz gain, harago joateko aukera planteatu nahi dute.



SAKANA

YOLANDA OLASAGARRE, EIBZKO IRAKASLEA ETA AHOZKO HIZKUNTZA IRAKASTEKO WEBGUNEAREN SORTZAILEETAKO BAT

«Ikastetxeetan ahozko komunikazioa modu planifikatu eta sistematiakoan jorratu beharko litzateke, baina ez da hala egiten»

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Hezkuntza Departamentuak euskarazko ahozko gaitasunaren inguruko webgune bat aurkeztu zuen urrian. Honek ahozko komunikazio gaitasunaren oinarri teoriko eta didaktikoak eta ikastetxeetan buruturiko praktikak jasotzen ditu. Gobernuak euskara teknikari Esther Muger-tza eta EIBZ Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko irakasle Yolanda Olasagarre arbi-zuarra arduratu dira web orria hezurmamitzeaz. Azken honi egitasmoaz galdetzeko parada izan dugu.



gertutik >>

Yoli Olasagarre

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko irakaslea



Esther Muger-tza eta Yolanda Olasagarre. Goian, institutuko ahozko taldea.

Zergatik erabaki zenuten proiektu honi ekitea?

Estherrek eta biok irakasleentzako prestakuntza eskaintzen dugu euskarazko ereduari. Orduan hor euskararen nolabaiteko sustapena egiten hasi ginen. Egoera pixka bat aztertuta, bi gauza ikusi genituen: batetik, ikasleen motibazioa landu behar zela, eta bestetik hauen ahozko gaitasuna jorratu beharra zegoela. Izan ere, irakasleek ikusten zuten euren ikasleek ez zutela behar adina euskara hitz egiten, eta zerabilten euskararen kalitatea ez zela nahikoa. Horrela, bada, bi adar horiek lantzen hasi ginen, eta webgunean aurkeztu duguna ahozko gaitasunari begirako jarduna izan da.

Ahozko gaitasuna ikastetxeetan ez da behar bezala lantzen?

Ez. Egokiena modu planifikatu eta sistematiako batean jorratzea litzateke, baina ez da hala gertatzen. Orain arte ahozkoa idatzizko parametroetatik begiratu izan da. Ahozkoak berezko ezaugarri batzuk ditu, eta lanketa apropos bat egiteko hauei erreparatu behar zaie. Esaterako, ahozko ekoizpena momentuan gertatzen da, ezin dezakezu egindakoa zuzendu, atzera egiteko aukerarik ez duzu. Idatzizkoan, aitzitik, bai. Bakoitzak bere

ezaugarriak ditu, beraz, modu berezitan jorratu behar dira. Bestalde, askotan ekoizpen bakarrean dena eskatu izan zaio ikasleari, eta hori ezinezkoa da.

Zenbat denbora eman duzue egitasmoa garatzen?

Duela zortzi bat urte motibazioaren inguruan lan egiteari ekin genion, eta geroago ahozkoaren lanketa propioa egitera igaro ginen. Hasiera batean prestaketa jasotzen aritu ginen, batik batik Mondragon Unibertsitatearen ikuspegitik. Horretaz landa, ahozko jarduna sortzeko Mintzola egitasmoa eratu zen, eta prestaketa lanetan honi ere erreparatu genion. Behin behar bezala formatuta, 2010-2011 ikasturtean ikastetxeetan esperientziak garatzen eta frogatzen hasi ginen.

Zer aurki daiteke zuen webgunean?

Alde batetik, gure planteamendua zein den; hots, ahozkoaren irakaskuntza zer ikuspuntutatik jorratzen dugun. Horretarako irakasle zein irakasleengandik jasotako inpresioetatik abiatu gara. Bestetik, euskara ikasle askorendako eskolan soilik lantzen den hizkuntza dela kontuan hartuta, oinarri soziolinguistikoko bat emateko

teko beharra ikusi dugu. Oinarri hori hizkuntza tratamenduari begirakoa da. Horrez gain, egindakoaren ondorio eta hausnarketak ere bildu ditugu. Horrela, aipaturiko elementuekin oinarri teoriko bat osatu dugu. Baina hori lanaren alderdi bat baino ez da. Izan ere, ondoren, didaktikari begira, sekuentzia didaktiko batzuk landu ditugu. Horretarako Genevako eskolak egindako proposametik abiatu gara. Sekuentziak mailaz maila (Haur Hezkuntzatik Baxilergoko lehenengo maila arte) jorratu ditugu, irakasleei prestakuntza eman diegu, eta ondoren hauek praktikan jarri dituzte. Maila bakoitzeko gutxienez eredu bat eskaintzen dugu.

Genevako eskolak egindako proposamenari egin diozu aipamen. Zer dio honek?

Oso azalez esanda: hizkuntza elkarrekin interakzioan eraiki eta sortzen dugula eta hori diskurtsoetan gauzatzen dela. Beraiek proposatutako sekuentzia didaktikoa hartu dugu tresna gisa ahozko hizkuntza eskolan lantzeko. Prozesua helburu komunikatibo bat zehaztuta hasten da. Gero ikaslea grabatu egiten da, prozesuaren hasieran zer gaitasun dituen ikusteko. Ondoren, irakasleak prozesua diseinatzen du, beti ere ikasleekin negoziatuta. Behin lanketa burututa, ikaslearen amaierako grabazioa egiten da. Horrela irakasleak aukera dauka ikusteko zertan hobetu duen, zer hutsune dituen oraindik... Lanketa, baina, ez da hor amaitzen, prozesu zikliko batez ari baikara. Horrela, urteen poderioz irakasle ahozko gaitasuna hobetuz joaten da. Horrez gain, gertuagoko adituen ekarpenak ere jaso dituzue. Bai. Hemen aditu oso aproposak ditugu: Joxerra Ruiz, Uri Ruiz, Itziar Plazaola, Josune Zabala edota Mondragon Unibertsitatean ari den Miker taldea, kasu. Guzti horiek esandakoa, dudarik gabe, gertuko eta kalitatezkoa da, eta kontuan hartu dugu.

Sekuentzia didaktikoak praktikan jartzeko zailtasunik izan da? Irakasleek ahozkoa tartean dutenean lantzen dute, jardura solteen bitartez. Kurrikuluma oso zabala da, gauza asko landu behar dira, beraz normala da soilik denbora dutenean jorratzea. Egoera horretan, zailtasunik handiena irakasleari beste modu batean lan egin behar duela erakustea da, ez dituela eduki gehiago gelaratu behar, bai zik eta beste modu batean lan egin. Ikasleak protagonismoa hartzen du, irakaslearen funtzioa aldatu egiten da, eta hasieran hori barneratzea kosta egiten da. Baina bukatzeran jasotzen ditugun balorazioak oso positiboak izaten dira; bai irakasleentzako, eta bai ikasleentzako ere. Finean, honek aukera ematen dio ikasleari hitza hartzeko, mutua ez gelditzeko.

Testuinguru linguistikoa desberdinetako zentroekin aritu zarete elkarrekin.

Zentroak izan ditugu Iruñerrian, Leitzaldean, Elizondon, eta baita Sakanan ere. Datorren urtearen hasieran Agoitz, Doneztebe eta Atarrabiako ikastetxeekin ere hasiko gara lanean. Orduan bai, testuinguru desberdinetako eskualdeak hartu ditugu; gure proiektua ez dugu leku bakarrera mugatu nahi izan.

Sakanan zentratuz, zer ikastetxerekin aritu zarete hemen?

Gurekin hasiera hasieratik egon den zentroa Altsasuko Mikel Donea Institutua izan da. Bidea haiekin batera egin dugula esan daiteke. 2010-2011 ikasturteaz geroztik ia urtero sekuentzia didaktikoak landu eta diseinatu ditugu. Oso pozik gaude orain arte zentro honekin izan dugun harremanarekin. Esperientzia oso-oso positiboa izaten ari da. Honez gain, banaka beste irakasle batzuekin aritu gara lanean. Esaterako, Zelandin bi irakasle aritu dira gurekin elkarrekin azkenean bi urteetan. Gero Sakanako ikastolan ere esperientziaren bat

izan dugu. Prest dauden guztiak jarduteko pronto gaude.

Elkarlana norekin hitzartzen duzue, ikastetxerekin edo zuzenean irakasleekin?

Hau prestakuntzaren baitan sartzen denez guk zentroarekin hitzartzen dugu, baldin eta ikastetxeak prestakuntza hori eskatu badu. Altsasuko institutuarekin hori gertatzen da. Gero jazo daiteke irakasle bat interesatua egoitea eta eskaera berak egitea; horiendako prestakuntza Nafarroa osoan eskaintzen dugu. Eskaeraren arabera egiten dugu lan. Badaigu ikastetxe batzuetan gure prestaketa jasotzearen aldeko irakasle talde zabala dagoela, baina beste zenbaitetan egoera bestelakoa da. Kasu guztietara egokitzatzen saiatzen gara.

Sekuentziak ebaluatzeko irizpideak ere jaso dituzue webgunean. Jarduerak behar bezala ebaluatzeko zer nolako garrantzia dauka?

Ebaluazioak aurretik egindakoak pistak ematen dizkizu. Horrela, ebaluazio apropos bat egiteak aukera ematen dizu handik aurrera egin beharrekota behar bezala egokitzeko. Webguneko atal honetan bi bide ireki ditugu: batetik ikasle ahozko ekoizpena ebaluatu behar dugu, eta bestetik proposamen didaktikoaren nondik norakoak. Hala ere, ebaluazioaren atal hau oraindik osatzeko dago. Momentuz Lehen Hezkuntzako 3. mailarako proposamen bat egin dugu.

Beraz, webgunea pixkanaka eguneratzen joango zarete.

Bai, lanean jarraituko dugu. Dena den, jada material asko dago eskegitik. Irakasleek ahozko gaitasuna landu nahi badute, oinarriak, materiala eta ikasle ereduak dagoneko eskuragarri dituzte. Hori guztia <https://sites.google.com/a/educacion.navarra.es/ahozko-hizkuntza-irakastea/> helbidean aurki dezakezue.

SAKANA

Urteko azken egunak: agur eta ongi etorri

Urteko azken egunetan gaude, Gabon bezperan. Gaur Olentzero etorriko da, senitartekoak eta lagunak afari eta bazkari berezietan bilduko dira eta, zergatik ez, parranda egingo duenik ere ez da faltako. Jakina, opariek ere izango dute bere tarte. Gabon edo Pazko zoriontsuak opatzeko egunak dira hauek. Eta, jakina, ate joka dagoen 2016ari ongi etorria ematekoak. "Urte berri on" izangoda, abenduaren 31n eta ilbeltzaren 1ean, ezinbesteko esaldia. Baina

urteko lehen egunari lotutako esaldi, edo, hobeto esanda, kanta ederra badaukagu gurean: Ur goiena, ur barrena...

2016an sartu berritan: Ur goiena, ur barrena...

Abenduaren 31n, urtea despeditu bezain pronto, 2016 urteari ongi etorria emango diogu Sakanan. Herri askotan *Ur goiena, ur barrena...* kantatuz eta iturrietako urte berriko lehendabiziko ura edanez emango diote ongi etorria urtea-



ri. Irañetan, Arruazun, Lizarragabengoan, Etxarri Aranatzan, Iturmendin eta Urdiainen mantentzen da iturriko ur berria jaso, ura edan edan eta Ur goiena, ur barrena kantua kantatzeko ohitura. Bestalde, Altsasun urteko azken eguneangaztainak eta ardoa banatuko dituzte Gure Etxean.

Sakanako Eguberriko Argazki Lehiaketa

Neguko solstizioarekin batera egun esanguratsuak heldu dira Sakanara. Hainbat ospakizun, ohitura eta erritu berri eginen dira hurrengo egunetan ibararen luze zabalean. Sakandarrek argazki kamara edo telefono mugikorra aldean eramaten dute eta haiekin lekukotza jasoko dute, ziurrenik. Jasotako irudi horiek Sakanako Eguberriko Argazki Lehiaketara aurkezteko aukera dago orain. Hala egin nahi duenak www.guaixe.eus web orrian

propio sortutako atalera jo eta argazkia igo besterik ez du. Parte-hartzaile guztien irudiekin ibarreko eguberria irudikatuta geldituko da.

Argazkiak aurkezteko aukera ilbeltzaren 8ra arte izanen da zabalik. Aurkeztutako argazkien aldeko botoak emateko aukera izanen da. Eta ilbeltzaren 20an boto gehien jaso duten hiru argazkien egileek sari gisa hainbat liburuz osatutako sorta bana jasoko dute.

Olatzagutia

Jaiotzen erakusketa ikusgarria

Sakanako Belenzaleen Elkarteak bere Olatzagutiako egoitzan jaiotza erakusketa ikusgarria ikusgai dago. Ilbeltzaren 10era arte bisitatu daiteke, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara. Domeketan eta jai-egunetan, 13:00etatik 14:30era eta 17:30etik 20:30era.



SAKANA

Hiru erregeak Sakanara bidean

Ilbeltzaren 5an hiru erregeen kabalkadak iritsiko dira Sakanara

Ekialdeko hiru erregeek, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek Sakanarako bidea hartuta dute eta ilbeltzaren 5erako iragarri dute iritsiko direla. Erregeei behar bezalako harrera egiteko prestatzen hasi dira Sakanan barna. Eta egun horretan Sakanaz ez ahazteko, asteartean, fale edo fareekin ibiliko dira goizeko 11:30etik aurrera haurrak Irañetan eta Lizarragan; arratsaldean Etxarri Arantzzen, Iturmendin edota Altsasun.

Bestalde, txikiek idatzitako kartak jasotzeko haien morroiak edo pajek Altsasura ilbeltzaren 3an, igandean, 19:00etan Burunda frontoira etorriko dira. Olatzagutian ere



egun berean, ilbeltzaren 3an, jarri dute hitzordua, 18:30ean, kultur etxean. Lakuntzan ere ilbeltzaren 3an, igandearrekin, umeen goizeko mezaren ondoren, etorriko dira erregeen laguntzaileak elizara, umeen eskutitzak jasotzera, 11:45ean gutxi gorabehera.

Hitzorduak

Hiria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Eliza.
Uhartarakil	18:30	Manuel Goikoetxearen zurgindegitik, Zerradoa
Lakuntza	18:00	Ibai aldetik
Arbizu	18:00	Udaletxea
Ergoiena	18:00	Lizarragako eliz atetik. Ondoren Dorraora eta Unanura joango dira.
Etxarri Aranatz	18:00	Eliza
Bakaiku	18:30	Eliza
Iturmendi	15:00	Fara-joleak plazan 19:00 Pilalalde kaletik
Altsasu	17:30	Farejoleen errege zozketa plazan 19:00 Sakana Institutua (LH)
Olatzagutia	18:00	Jubilatu elkartetik
Ziordia	19:00	Texeria kalea



“Olentzero joan zaigu, mendira lanera...”

Gaur, ostegunean, Sakanako makina bat herri bisitatuko ditu ikazkinak

Basoa eta txondorren epela utzita, ikazkinak herrietako bidea hartu eta gaur, Gabon bezperan, gure herrietara iritsiko da. Olentzerok makina bat hitzordu ditu Sakanan. Harrera horietarako prestatutzak ilusio guztiarekin egin dira, eta txikienak, bereziki, ikazkinak ekarriko dituen oparien zain daude, irrikitan.

Gaur goizean pazkuan amores eskean ariko dira haurrak Uhartarakilen eta Etxarri Arantzzen. Goizez, kantu-eskean ere hainbat herritan ariko dira, esaterako, Altsasun eta Ziordian.

Lana aurreratuzuen ikazkinak larunbatean Etxeberri bisitatuz eta igandean Zuhatzura joanez. Bestalde, Lamiatutur Olaztin egon zen igandean, Olentzeroren etorrera iragarritz. Iñigo Aritzta ikastolokak postontziaren bila ibili ziren Urriñe, Sarabe eta inguruko paraje ederretan igandean, eta urrutitik Olentzero eta Mari Domingi ikusi zituzten. Azken hau igandean Lizarragan izan zen, gaur Olentzero etorriko dela iragartzeko.

Gaur harrera beroa egingo diote ikazkin maiteari herri guztietan. “*Horra, horra, gure Olentzero, pipa hortzetan duela eserita dago...*”



Hitzorduak

Hiria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Plazaolako zubia.
Etxarren	16:30	Eliza.
Satrustegi-Hiriberri	17:30	Satrustegiko elkartean txokolatada. 18:30 Olentzero Satrustegin. 19:30 Olentzero Hiriberrira eta merienda.
Ihabar	18:30	Autobia azpiko zubia.
Irañeta	18:00	Autobus geltokia.
Uhartarakil	18:00	Itxesin, Beriaingo bidea hasiera.
Arruazu	19:30	Ubeldeko zubia.
Lakuntza	18:00	Trenbide azpiko zubia.
Arbizu	18:30	Plaza.
Unanu	18:00	San Donato bidetik.
Dorrao	18:30	Goitiko ur biltegia.
Lizarraga	18:00	Menditik.
Etxarri Aranatz	17:00	Aldapasoro auzoa.
Bakaiku	17:30	Elkartean txokolate jatea. Mari Domingi ere etorriko da. 18:30 Zulanpe.
Iturmendi	19:00	Estafeta kalea, Bakaiku aldetik.
Urdiain	18:00	Portuko kalen.
Altsasu	11:30	Plazan, Mari Domingi gaiteroekin. Ondoren, Zumalakarregira, fanfarre, txistulari eta eskolaniakoekin. 17:45 Olentzero eta Mari Domingi San Juan basilizara iritsiko dira. Ondoren ibilbidea, Zumalakarregin, miura banaketa, txondorra eta askaria eta gero Foru plazara. Txalaparta, dantzariak, abesbatza...

denda txikiak, pertsona handiak

HURBIL DITUGU EGUBERRIAK. DENDA HOBERENAK ERE BAI

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

SAKANA

Hondakinen inguruko sentsibilizazio kanpaina ikastetxeetan

Nafarroako Gobernuak sustatu eta Sakanako Mankomunitateak antolatuta, ikastetxeetan izan diren tailerren helburua hondakinen prebentzioa eta gaikako bilketa sustatzea izan da

Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Arantz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutiako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailako 242 ikasle izan dira tailerretan parte hartu dutenak. Ikasleek saioetan hondakinen kudeaketa zuzenaren garrantziari buruzko informazioa jaso dute, modu ludikoan eta, betiere, prebentzioan eta birziklapenean oinarrituta, ingurumenaren babesa hobetzen laguntzeko. Ikasleak sentsibilizatzea hondakinei buruzko legediak jasotzen duen jardueretako bat da. Lege horren helburua hondakinak %10 murriztea da eta %50eko birziklapen-mailak lortu nahi ditu etxeko eta merkataritzako hondakinetan 2020. urterako.

Hondakinei buruzko sentsibi-



Ikasleak hondakinei buruzko bideoa ikusten. UTZITAKOIA

lizazio tailer horiek Nafarroako Gobernuak Gestión Ambiental de Navarra (GAN) enpresa publikoaren bidez bulkatu ditu eta Mankomunitateak antolatu eta babestu ditu. Ekimen hori foru administrazioak

hondakinak kudeatzeko sistema integratuekin sinatutako hitzarmenen barnean sartzen da. Hona-koak dira sistema horiek: ontziari-
nak, papera eta kartoia (Ecoembes); beira-hondakinak

(Ecovidrio); eta tresna elektriko-
en eta elektronikoen hondakinak, TEEH (Ambilamp, Ecoasimelec, Ecofimática, Ecolec, Ecolum, Eco-
raee, Ecotic, Europako Birziklatze
Plataforma eta Tragamóvil).



Altsasu institutuak logotipo lehiaketa antolatu du

Udazkenean Aralarko Mikel Donea izendapena utzi eta Altsasu institutua hartuzuen ikastetxeak orain logotipo bat aukeratu nahi du. Logo horizentzoko irudia izanen da ikastetxeko agirietan. Haren bidez ikastetxeari "nortasuna" eman nahi diote. Institutua gaitzat hartuta, edozein nahi adina logotiporekin aurkeztu daiteke lehiaketara. Betiere, originalak badira.

Ezaugarri teknikoak dagokienez, proposamenek gutxienez 10x10 cm-ko neurria izan behar-

ko dute. Lanekin batera diseinuaren zergatiaren azalpen txiki bat gehitu behar da, bost lerrokoa gehienez ere. Lanak ikastetxearen idazkaritzan aurkeztu behar dira. Proposamen bakoitzaren atzean egilearen datuak agertu beharko dira. Martxoaren 4ko 14:15era arte aurkeztu daitezke lanak. Epai-
leek kontutan izanen dituzten iriz-
pideak honakoak dira: irudiak
xehetasun gutxi izatea; praktiko-
tasuna (hainbat euskarritan era-
bilgarria izatea, txuri-beltzean
inprimatu ahal izatea eta ikaste-



Ikasle eta irakasleek logoaren aukeraketan zeresana izanen dute.

txearen datuak gehitu ahal izatea) eta originaltasuna.

Lan guztiak martxoaren 7tik 11ra ikusgai izanen dira eta epai-
mahaiak haietako bost aukeratu-
ko ditu. Hil hartako 14tik 18ra
bitartean ikasleek boto bidez auke-

ratuko dute logoa. Irakasleek mar-
txoaren 22an. Bi bozketek azken
aukeraketan %20nako balioa izan-
en dute. Gainontzeko %60a epai-
mahaiarena izanen da. Aukeratu-
tako lanaren sortzaileak 200 euro-
ko saria eskuratuko du.

Uharteko Arakil

Truke jolasa, eta gehiago



Uharteko plaza jolas parke bihurtu zen. UTZITAKOIA

Eguraldia lagun, frontoian egite-
koa zen jostailu trukaketa plazan
egin zen azkenik igandean. Haur
txokoa jasotako txartelarekin
uhartear txikiek, aukera zabala-
ren artean, euren jostailu
bana hartzeko aukera izan zuten.
Baina plazan jostailu trukeaz apar-
te jolas kooperatiboak izan ziren.
Haur, gazte eta helduak haiekin
goiz-eguerdi pasa ederra izan
zuten. Eskaintzak uhartear asko
erakarri zituen, gainera.

Irurtzun aldeko Oinarrizko
Gizarte Zerbitzuen Mankomuni-

tateko Iosune Zabala Ijurkok
"herrian halako ekimenak aurre-
ra eramateko euren lanagatik eta
inplikazioagatik" Uharteko gura-
soei eta udalari esker ona azaldu
ziren. Zabalak azaldu digunez, jostailuak eta jolasak herritarrak
elkartzeko balio zuten, baina elkar-
tasuna ere adierazi zen: "premiak
dituzten haur eta familien artean
banatzeko joko eta jostailu asko
eraman ziren". Guztiei eskerrak
eman eta halako ekimenak "denon
arte aurrera eramaten" segitze-
ko deia egin du.

SAKANA

Garapen agentea kontratatzeko deialdia

Sakanako Garapen Agentziak teknikari bat kontratatu nahi du, amatasun baja bat ordezkatzeko. Lanpostuaren egitekoak dira: industria dinamizatzaile gisa aritu, enpresei bisitak egin, tokiko garapena dinamizatu eta enpresa, erakunde eta bestelako erakundeen arteko elkarlan foroetan parte hartzea. Besteak beste euskara ezagutzea eta autoa izatea eskatzen zaizkio. Interesatuek industria@sakana-mank.com-
postan jaso dezakete informazioa eta eman dezakete izena, beti ere, ilbeltzaren 8ko 13:00ak arte.

Urdiain



Zufiaurrek liburua aurkeztu du

Benjamin Zufiaurre Goikoetxeak, Nafarroako Unibertsitate Publiko-
ko Eskola didaktika eta antolakun-
tza katedradunak Glasgowgo eta
Liverpoolgo Unibertsitateetako
David Hamiltonekin batera idatzi-
tako liburua da. Bi irakasleen argi-
talpenak *Cerrando círculos en edu-
cación: pasado y futuro de la esco-
larización* izenburua du. Azaroaren
25ean izan zen aurkezpena, Nafa-
rroako Parlamentuaren egoitzan.

Etxarri Arantz

Maioren laguntzaile etxarriarrak

Rafael Carasatorre eta Jonas Erraz-
kin etxarriarrak dira Fernando Maio-
ra bere azken liburuan lagundu
dutenetako bi: *Léxico autóctono
histórico de Navarra* (egilea argi-
taratzaile). Artaxoako ikerlariak
Beratik Vianara arteko artxiboetan
opaturako euskal hitzen bilduma egin
du liburu horretan. Maiorak bere lana
etorkizunean euskararen Nafarro-
ako mapa historikoa egiteko bali-
garria izatea espero du.

Lakuntza

Sakanako lau sortzaile lanak ikusgai

Jokin Alegriaren, Kaleren, koadro-
ak, Xole Artolaren lanak. Bi lakun-
tzarrekin batera, Elena Vera altsa-
suarraren irudi digitalak eta Miren
Ustarroz uhartearren eskulturak.
Horiek guztiak Lakuntzako kultur
etxean ikusgai izanen dira ostirale-
tik ilbeltzaren 6ra arte, 17:00etatik
20:30era eta jai egunetan goizez ere.



SAKANA

Sakanak eta Nafarroako Gobernuak plan estrategikoa mahai gainean

Aldeak atzo arratsaldean elkartu ziren planaren finantzabideak eta gobernantza eredu zehazteko

Sakana 2020 Plan Estrategikoa (SPE) aurrera eramateko ibarreko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak elkartu ziren atzo. Bi aldeek euren konpromisoak eta zereginak lankidetzaz hitzarmen bat zehazteko lana zuten. SPE lan tresna izanik Sakanako egoerari modu orokor eta partekatutak batean erantzutea ahalbidetuko duen hitzarmena landu zuten. Erredakzioa ixterakoan ez genuen jazotakoaren berri.

SPE gauzatzeko zazpi milioi euro inguru aurreikusten dira; 2016rako 600.000 euro aurreikusten ziren. Nafarroako Gobernuko Ekonomia lehendakari-orde Manu Aierdik pasatzen ostegunean jakinarazi zuen aurrekontuetan 250.000 euro bideratuko direla.



Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak jakinarazi digunez, "bide orria zehaztuta daukagu. Planean jasotako guztia tarifatu dugu". Beraz, negoziazioan dirua zein jarduerari, ekimen bakoitzeko zein diru-sail izanen

duen, noiz eta bestelako erabakiak hartuko dituzte. Sakanatik beheko proposamenarekin joanen dira.

Karasatorrek espero du negoziazioak azkar garatzea. "Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak otsailerako indarrean iza-

nen dira. Ez dakigu horren zain gelditu beharko dugun edo diru-sailen bat lehenago jasotzerik izanen dugun". Mank-eko buruak SPEn jasotako beste jarduerak batzuk ohiko deialdi edo bestelako diru-sailekin finantzatzeko aukera ez du baztertu.



Sakanako enpresek gehien eskatzen dituzten lau lanpostuak identifikatuta

Merkataritza-teknikaria, teknikari-administraria zerbitzutan, tornulari-fresatzailea eta muntaia-argiketaria eta industria-automatizazio mantendua dira lanpostuak

Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) ibarreko enpresek gehien eskatutako lanpostuak zein diren identifikatzeko ikerketa egin du. Bi zerbitzuen arloan (merkataritza-teknikaria eta teknikari-administraria zerbitzutan) eta beste bi industriar (tornulari-fresatzailea eta muntaia-argiketaria eta industria-automatizazio mantendua). SEE jabetu da ibarrean langabezia handia izateaz aparte, bertako enpresek hainbat lanpostu sakandarrekin betetzeko arazoak dituztela. "Desoreka hori" ezabatzeko asmoz elkarrekin ikerketa egin du. Horrekin batera, SEEk langileak lanpostu horietarako trebatzeko prestakuntza ibilbideak zehaztu ditu. "Helburua Sakanako langileen gaitasun profesionalak hobetzea da eta, zenbaitetan, langileen ezagutzen eguneratzea, enpresen lehiakortasun gaitasuna handitu eta langabezia jaitzeko". Prestakuntza arautu, ez arautua, gaitasunen hobetzea eta beste jasotzen dira zehaztutako ibilbideetan.

Lastailean hasi ziren ikerketa egiten. Enpresen informazio historikoa, enpresa handienei bisitak, galdetegiak, elkarrizketa pertsonalak eta beste egin dituzte eskaera gehien duten lanpostuak identifikatzeko. Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren finantziarioekin.



2015ean SPetik landu dena

Aurten bi lanildo aurreikusitako ziren: batetik, SPEren kudeaketa zerikusia zuten ekimenak garatu dira eta, bestetik, proiektu zehatzak definitu eta indarrean jarri dira.

Garapen egituraren artikulazioa

- SPE instituzio eta erakunde autonomoetara aurkeztu ziren. Hasita.

- Plana gauzatzeko elkarlan eta finantziario markoak identifikatu dira. Hasita.

- Sakanako Sozio-ekonomia Behetokia elkarlan publiko-pribatuko eta estrategia hausnarketarako plataforma gisa bulkatu da. Hasita.

- Sakanako Garapen Zentroa, Utzugane, egituratu eta indartu. Hasita.

- Udalen eta Sakanako Enpresarien Elkartearen arteko foroak sortu da enpresak mantentzeko eta berriak sortzeko. Planifikatuta.

- Prestakuntza ikastaroetarako eta enpresetan praktikak egiteko, Lanbide Heziketa ikastetxearen eta eskualdeko ekoizpen ehunaren arteko elkarlanari bultzada. Hasita.

- Cluster politiken eta enpresen arteko elkarlanaren inguruko informazioa eta prestakuntza zabaltzea. Planifikatuta.

- Nafarroako Hiri Txikien Plan Zuzendaria egiteko eskaera egin da.

Elikadura

- Herri lurren kudeaketa plana egin. Hasita.

- Sakanako ekoiztutako produktuak erakusgaiak egin. Planifikatuta.

- Turismo, jatetxe, denda elkarrekin arteko sinergiak. Hasita.

- Sakanako abeltzain eta ekoizleen foroaren sorrerari bulkada

eman. Planifikatuta.

Industria eta Zerbitzuak

- Industrialdeen egoeraren eta okupazio mailari buruzko ikerketa egin; lurren, industria orubeen kalifikazio inbentarioa. Hasita.

- Industria inbentarioa eta ekoizpen-, teknika- eta teknologia-gaitasunen mapa egin. Hasita.

- Enpresen arteko artikulazioa hobetzeko eta tokiko enpresek eman ditzaketen zerbitzuak aztertu eta identifikatzea. Hasita.

- Ideien garapenerako co-working gunea sortzea. Planifikatuta.

Energia

- Energia ekoizpenerako biomasa erabilera sustatzeko akzioak sortzea. Hasita.

- Ibarreko Energia Baliabideen bideragarritasun ikerketa. Hasita.

- Energia berriztagarrien erabilerraren eta energia kudeaketa eraginkor baten abantailen onurak eta ontasunak kanpainaren bidez gizartearen zabaltzeko interakzioen sustapena. Hasita.

Turismoa

- Dauden ekitaldien indartzea eta artikulazioa. Hasita.

- Kartel, plano eta bestelakoak sortzea. Planifikatuta.

- Turismo informazio puntuen programa sortu. Hasita.

- Ondarea baliatuz produktuak sortzea. Hasita.

- Bordele-Astorga erromatar galtzadari, Baskoien bideari, balioa eman. Hasita.

- Ibilbideen sistematizazioa eta sustapena. Hasita.

- Kultura, historia edo kirol intereseko elementuen seinalez tapena aztertzea. Planifikatuta.

- Merchandising-a sortzea. Hasita.

2016an SPetik landu daitekeena

1. Industria

- Sakanako industria-ehunaren behar eta gaitasunak aztertzen segitu.

- Eskualdearen indarguneak zabaltzeko Marketing Plana.

- Industrialdeen inbentario eta hobetzeko proiektuarekin segitzea.

- Prestakuntza, kooperazioa, nazioartekotzea eta enpresa-berrikuntza sustatzea.

- Utzugane eskualde garapenerako topagune gisa indartu.

- Sektore foroak identifikatu eta cluster programa sortu.

- Hezkuntza eta industria arloen arteko kudeaketa parte-hartzailea.

- Enpresa-inkubagailu edo enpresa-mintegi proiektuek ikerketa eta diseinua.

2. Energia

- Administrazioan energia arloko sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainarekin segitzea eta industriara zabaltzea.

- Sakanako udalerrietako Alkateen Fakturako bide-orria diseinatzea.

- Egitasmo berde, biomasa, argiteria publiko eraginkor, mikro-sare eta bestelakoetan enpresei eta udalei aholkularitza eman.

- Energia-pobreziaren programa-

ren diseinua.

3. Turismoa

- Eskualdeko turismo eta kulturaren kudeaketa eta aholkularitza indartzea.

- On-line tresnak, irudi arloko, kartelak, planoak, merchandisinga sortu eta bultzatzea.

- Turismo produktuen inbentarioa sortzea. Turismo eragileen artean natura eta kultura ondareari buruzko produktuen zabalkundea egin. Turismo Planaren definizioa zehaztu.

- Erromatar galtzadaren eta hura ondoren Done Jakue bide gisa izandako erabilerraren ikerketa historiko zientifikoa.

- Enneco, haritzaren memoria egitasmoa bulkatu.

4. Elikadura

- Eskualdeko produktuak, ekologikoak eta kalitatezkoak kontsumitzearen onuren berri emanen duten prestakuntza eta sentsibilizazio jardunaldiak.

- Merkaturatze tresna berrien inguruan ekoizleak trebatu.

- Abeltzainen edota ekoizleen foroak sortu.

- Ustiapenen eta tokiko elikadura sistemen jasagarritasunean hobetzeko aholkularitza eta akonpainamendua.

- Turismo erakunde, jatetxe, denda eta abarren arteko sinergiak bilatzea.





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Benita Sáez de Maturana
Pérez de Onraitia

Lautadako lorea,
neguan hartu duzu atsedean.

Mank

s a k a n a



Lehen zurekin
etortzen nintzen,
orain zuregan nator.

2015ean hildako gure bazkide
eta bezeroak gogoratuz

bierrik

fundazioa

beleixe GUAIXE.EUS



GRUPO
**Funeraria
VASCONGADA**
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.eus

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen dut Lakuntzan. 3 gela, 2 komun. Deitu 689 23 27 08 Jose.

Galdutakoak / opatutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Oharra

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta amalur@amalurelkarrea.org

Irurtzango irakurle taldea. Ilbeltzaren 7an, "Un armario lleno de sombra" - Antonio Gamoneda.

Odol-emaileak. Abenduaren 30ean, Irurtzunen, arratsaldean.

Arropa bilketa. Calais-eko errefuxiatuendako: mantak, lo zakuak, kanpin dendak, neguko arropa. Bilketa puntuak: Beheko Benta, 3. Altsasu. Astelehenerdik ostiralera 15:45tik 17:45era. Beste ordutegiak: 660 89 05 45.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabete lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa

jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman

edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta ertaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arratzak, garga-ardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola

idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxe-etan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Asteleheneretan Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakana-mank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparaldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu eraldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxa hurrengo kontu zenbakia

JAIOTZAK

- **Leia Martinez Reparaz,** abenduaren 13an Altsasun.
- **Unai Ramos Santamaria,** abenduaren 16an Altsasun
- **Ibai Larraza Carrasco,** abenduaren 17an Altsasun.
- **Alain Lizarraga Goñi,** abenduaren 17an Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

- **Benita Saez de Maturana Perez,** abenduaren 18an Altsasun.
- **Laureano Lizarraga Artola,** abenduaren 20an Dorraon.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufrizten ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunerara jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaiztuen Elkarrekin bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaiztuen Elkarrekin bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaiztuek aisialdi behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaiztuen Elkartetik.

IZOTZ IRRISTAKETA

IOSEBA FERNANDEZ PRESTATZEN: Ioseba Fernandez irristalaria Gabon aurreko biz-pahiru aste hauetan Alemanian egon da

kontzentratuta, izotz irristaketaren teknika eta ezaugarriak ikasten. Izotzean aritu edo ez, ondoren hartuko omen du erabakia.

kirola >>

Pilota

Elkarren kontra

EZKURDIA-BARRIOLA ETA IRRIBARRIA-ZUBIETA IGANDEAN LEHIATUKO DIRA, TOLOSAN (ETB1, NTB)

Asteburuan Binakakoan dabil-tzan pilotari sakandarrek ez dute punturik biltzea lortu.

Ostiralean Altsasun jokaturako partida gogor eta estuan, hasieran parez pare aritu ziren Ezkurdia-Barriola eta Irujo-Rezusta. Tanto gogor eta lehiatuak izan ziren, eta ez zen inor gailentzen. Ezkurdia eta Barriola aurreratu egin ziren, 12 eta 13, baina 13ko berdinketa-aren ondoren Irujo eta Rezusta gailentzen hasi ziren. Iberoko aurrelaria erremate bikainak egiten hasi zen, eta atzeko koadroetan Rezustak primeran eutsi zien Ezkuriaren eta Barriolaren eraso-oi. Horrela, tantoak pilatzen joan ziren eta azkenean 22 eta 15 gailendu ziren Irujo eta Rezusta, txapelketako euren 3. puntua lortu. Aldiz, puntu batekin daude Ezkurdia eta Barriola.

Bestalde, oraindik punturik gabe dauden bi biko lehiatu ziren asteartean Arrasaten, Bengoetxea VI.a eta Untoria iazko txapeldu-nak eta Irribarria eta Zubieta.



Zubieta eta Ezkurdia arerioak izango dira igandean Tolosan.

Partida hasieran bi bikoak parez-pare aritu ziren, 8ra berdindu arte. Hortik aurrera zeharo aldatu zen partida. Leitzarrak ez zuen akatsik egin eta errioxarra bikain aritu zen atzean, eta 7 tanto egin zituzten segidan. Irribarria buelta ematen saiatu zen, baina

akats nahikotxo egin zituen. Buker-eran, 22 eta 13 galdu zuten Irribarria eta Aitor Zubieta etxarri-rrak, eta txapelketan punturik bil-du gabe jarraitzen dute.

Elkarren kontra

Asteburuan txapelketako 4. jardu-

Saillkapena:

Irujo-Rezusta eta Artola-Albisu	3 puntu
Olaizola II.a-Urrutikoetxea	2 puntu
Altuna III.a-Merino II.a	1 puntu
Ezkurdia-Barriola	1 puntu
Berasaluze II.a-Beroiz	1 puntu
Bengoetxea VI.a-Untoria	1 puntu
Irribarria-Zubieta	0 puntu

Binakako

4. jardunaldia

Altuna III.a-Merino II.a / Artola-Albisu (ostiralean, 17:00etan, Eibarren. ETB1, ntb)

Berasaluze II.a-Beroiz / Bengoetxea VI.a-Untoria (larunbatean, 20:30ean, Etxebarrin)

Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Irujo-Rezusta (larunbatean, 18:00etan, Bilbon. ETB1, ntb)

Ezkurdia-Barriola / Irribarria-Zubieta (igandean, 17:00etan, Tolosan. ETB1, ntb)

naldia dago jokoan. Igandean, Tolosako Beotibarren, Ezkurdia eta Barriolak Irribarria eta Zubieta izanen dituzte aurkari. Bi taldeak puntuen faltan daude, punturik ez baitute Irribarria eta Zubietak eta bakarria Ezkurdia eta Barriolak. Lehia oso estua espero da.

Irurtzun EHko Kluben Arteko Torneo Nazionaletik kanpo

Final laurdenetan irurtzundarrek galdu egin zuten Aurrera Saiazen kontra

Emitzak:

Lau t'erdian: Beloki (Aurrera Saiaz) 5 / Ezkurdia (Irurtzun) 18

Buruz buru: Urretabizkaia (Aurrera Saiaz) 18 / Armendariz (Irurtzun) 11

Binaka: Labaka-Telletea (Aurrera Saiaz) 22 / Lansalot-Mariezcurrera (Irurtzun) 12

Euskal Herriko Kluben Arteko Torneo Nazionalean final laurdenak jokatzeko ari dira. Irurtzunenek Tolosako Aurrera Saiaz izan zuen aurkari. Irurtzundarrek jokaturako 3 partidetatik 2 galdu zituzten, eta txapelketatik kanpo geratu dira. Bestalde, zenbait pilotari sakandar Zangozakolau t'erdian partehartzen ari dira. Asteburuan, kimuetan, Oberenako Leizari 2 eta 18 irabazi zion Aldabideko Imazek. Haurren kategorian, Oberenako Otondori 15 eta 18 irabazi zion Aldabideko Imazek. Aldiz, Aldabideko Goikoetxeak 14 eta 18 galdu zuten Lizarrako Pierolaren kontra. Seniorretan, Irurtzun taldeko Murgiondok 7 tantotan utzi zuen Zugarraldeko Galartza.



MUNTAKETA ETA
INSTALAZIOAK



PROIEKTU EOLIKOAK
ETA FOTOVOLTAIKOAK



GESTIO ENERGETIKO
ETA MONITORIZAZIOA

Areto futbola



SDA-ko benjaminak.

Benjaminendako I. Gabonetako Torneo antolatu du SDA-k

Abenduaren 26an jokatu da, ostiralarekin, 15:00etan hasita

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) I. Gabonetako Areto Futbol Torneo antolatu du Altsasun. Horretarako Nafarroako Gobernuaren, Altsasuko Udalaren eta hainbat babesleren laguntza izan du. Areto futboleko torneoan benjamin mailako neska-mutikoez hartu ahal dute parte, 8 urtekoek.

6 TALDE

Torneoan benjamin mailako 6 areto futbol taldek parte hartuko dute: Lakuntzako Lagun Arteak, SD Alsasua-Seguros Sayasek, Urdiain Kirol Elkartek, S.D. Alsasua-Arquitectura Floresek, Olaztiko Sutegi Kirol Elkartek eta S.D. Salvatierrak. Ostiralean jokatu da Torneoa, 15:00etatik aurrera Zelandi Kiroldegian.

Irurtzungo 12+12 orduak asteburuan

Guan taldeak Gabonetan antolatutako 12+12 areto futbol txapelketa aurten abenduaren 26an eta 27an izanen da, larunbatean eta igandean. Txapelketan izena eman nahi duten taldeek 649 092 346 telefonora hots egin beharko dute. Txapelketa honetan ohikoa denez, sari potoloak izango dira: talde irabazleak 500 euro jasoko ditu, bigarrenak 250 euro eta hirugarrenak 100 euro, eta torneooko jokalaririk onenarentako eta atezain onenarentako ere saria izango da. Horretaz gain, final handiko atsedendaldian Gabonetako zare bat zozketatuko da.

Pala

2 txapel Sakanara



Otxoak eta Gomezek 25eta 8 irabazi zieten Montoyari eta Senosiaini.

NKJen Emakumeen Paleta Gomako txapelkunak dira Orella-Beltza eta Otxoa-Gomez

Igandean Nafar Kirol Jolasen Emakumeen Paleta Gomako lehen faseko finalak jokatu ziren. Jokatuak lau finaleratik Etxarri Aranazko Gure Pilotako palistak hirutarako sailkatu ziren, eta bi txapel ekarri dituzte Orella-Beltzak, benjaminetan, eta Otxoa-Gomezek, haurretan. Kimuetan Irisarri-Irisarri txapeldunordeak izan dira.

NKJ. Emakumeen Paleta Gomako 1. faseko finalak:

- Benjaminak:** Gure Pilota A (Orella-Beltza) 13 / Mendillorri (Murillo-Arbizu) 18
- Kimuak:** Esteribar (Fernandez-Martinez) 18 / Gure Pilota (Irisarri-Irisarri) 6
- Haurrak:** Gure Pilota A (Otxoa-Gomez) 25 / Auñamendi A (Montoya-Senosiain) 8
- Kadeteak:** Auñamendi (Saragueta-Erro) 25 / Mendillorri (Nagore-Azanza) 11

Nortzuk dira palista onenak?

1. Gure Pilota Pala Torneoko finala jokatu da igandean, 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranatzek

Asteburuan erabakiko da nortzuk jantziko dituzten I. Gure Pilota Sakanako Pala Torneoko txapelak. Txapelketa Nafarroako Pilota Federazioak antolatu du, Sakanako Mankomunitatearen, Etxarri Aranazko Gure Pilota klubaren eta Arbizuko eta Etxarri Aranazko Udalen laguntzarekin. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagotia adierazi zigunez, Nafarroako Pilota Federazioak, Mank-ek eta Gure Pilota klubak indarrak batu

dituzte, helburua "txapelketa indartsu bat antolatzea" delako, "hurrengo urteko pala egutegian Euskal Herri mailan lekua izango duena". Eta badirudi lortu dutela, izan ere puntako palistak lehiatzen ari baitira asteburuko Etxarri Aranazko eta Arbizuko frontoietan.

Finalak igandean jokatu dira, abenduaren 27an, 10:00etatik aurrera Etxarri Aranazko Euskal Herriari pilotalekuan. Sekulako partidak jokatu dira orain arte eta final ikusgarriak espero dira. Ea txapelak Sakanan gelditzen diren.



Sakanako I. Gure Pilota Pala Torneoan parte hartu duten palista batzuk.

Finalak

- Kimuak:** Eider-Julene / Auritze-Olaia
- Kadeteak:** Maddi-Maitena / Luzia-lune
- Gazteak:** Saioa-Narora / Uxue-Aroa
- Promozioa:** Arrizabalaga-Parot / Murillo-Gabirondo
- Elitea:** Garmendia-Ruiz de Larramendi / Araiztegi-Bordagaray

Emaitzak

- Kimuak**
Eider-Julene 17 - Auritze-Olaia 18
Haizea-Maialen 18 - Miren-Ane 15
Eider-Julene 18 - Haizea-Maialen 14

- Kadeteak**
Elorri-Irantzu 15 / Luzia-lune 25
Iraia-izaro 14 / Uxue-Ane 25
Maddi-Maitane 25 / Uxue-Ane 23
Iraia-izaro 17 / Luzia-lune 25

- Gazteak**
Narora-Dinora 21 / Saioa-Narora 25
Biaín-Aroa 25 / Narora-Dinora 23

- Promozio maila**
Igoa-Argain 22 / Murillo-Gabirondo 30
Otaegi-Maiza 30 / Isasmendi-Ardanaz 11

- Elite maila**
Muneta-Etxaniz 22 / Garmendia-R. de Larramendi 30
Aristorena-Arrieta 30 / Martin-Huizi 2

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

14. JARDUNALDIA

ARROTXAPEA 1 - ETXARRI ARANATZ 0
GARES 2 - LAGUN ARTEA 0
Asteburu honetan gauzak gaizki joan zaizkie Sakanako taldeei. Etxarri Aranatzek lidergoa galdu zuen Arrotxapearen kontra 1 eta 0 galdu eta gero. Partida lehiatuan, azken unean Arrotxapeak garaipenaren gola sartu zuen. Garesen 2 eta 0 galdu zuen Lagun Arteak. Lakuntzarrek Gares estutu zuten, baina ez zituzten 3 puntuak lortu.

Saillkapena >>

- 1. Gares 31 p
- 2. Etxarri Aranatz 30 p
- 9. Lagun Artea 19 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - AIBARÉS (Ilbeltzaren 9an edo 10ean, San Donaton)
LAGUN ARTEA - CASTILLO DE TIEBAS (Ilbeltzaren 10ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

14. JARDUNALDIA

ALTSASU 2 - MENDILLORRI 1
Partida berehala kontra jarri zitzaion Altsasuri, Mendillorri 4. minuturako aurreratu baitzen. Baina Altsasu dominatzaera pasa zen, gol aukerak sortu zituen eta berdintzea lortu zuen. Bigarren zati lehiatuan bukaera aldera garaipenaren gola sartu zuen Alexanderrek.

Saillkapena >>

- 1. Lezkairu 38 p
- 10. Altsasu 15 p

Asteburuko jardunaldia

BETI KOZKOR - ALTSASU (Ilbeltzaren 9an edo 10ean, Lekunberrin)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

2. FASEKO 3. JARDUNALDIA. A MULTZOA

EGIARRETA 3 - BAR MIKEL 1
ZALDUA 2 - APOLO 4

Saillkapena >>

- 1. Egiarreta 9 p
- 7. Zaldua 3 p

Asteburuko jardunaldia

UNZITI - EGIARRETA (Ilbeltzaren 9an)
ZALDUAK atsedendaldia.

Areto futbola

Magna Gurpeak 4. postuan despedituko du urtea

Palma Futsalen kontra 5 eta 4 galdu zuten irurtzundarrek astearlean

Saillkapeneko hirugarren postuan gozo-gozo zebilen Magna Gurpea, baina astearlean Palma Futsalen kontra 5 eta 4 galdu ondoren laugarren postura jaitzi da Irurtzungo taldea. Okerrena da Imanol Arregiren mutilak 0 eta 2 irabazten zihoazela Javi Eseverrik eta Victorrek partidako lehen 4 minutuetan sartutako golei esker. Baina Palma Futsalek bina berdintzea eta 3 eta 1 aurreratzea lortu zuen. Roberto Martilek hiruna berdindu zuen atsedendaldia baino lehen. Bigarren zatian, Palma Futsaleko Vadillok bi gol sartzea lortu zuen. Javi Eseverrik, penaltiz, Irurtzungoen laugarrena sartu zuen, eta nahiz eta berdeak atezain-jokalaria formularekin aritu, ez zuten markagailua aldatzea lortu eta 5 eta 4 galduak iritsi ziren etxera. "Markagailuan aurretik jarri gara baina gu min egiteko pazientzia izaten jakin du Palma Futsalek" adierazi zuen partida bukaeran Imanol Arregik. Saillkapen orokorrean Inter Movistar da liderra (46 puntu). Magna Gurpea laugarrena da (30 puntu). Ilbeltzaren 4an saillkapenean 12.a den Santiago Futsal hartuko du talde berdeak Anaitasunan, 20:30ean.

ASOCIACION EMPRESARIOS DE SAKANA
AES
ASOCIACION DE EMPRESARIOS DE SAKANA

948 468 307
Utzubar industrialdea, 8. partzela · Arbizu
personal@aesakana.com

ESTANKO SAN DONATO

- Telekomunikazioen aholkularia
- Telefonia finkoa, mugikorra eta ADSL
- Energia, argia eta gasa
- Informatika
- Ordenagailuak, osagarriak, kontsumigarriak...

tezkaba.acnshop.eu **ISMAN**
948 462 033 | Fernando Urkia, 17 | Arbizu

Mendia



Casimirok eta Abregok K2ra egindako igoera hizpide Lakuntzan

Larunbatean, 19:00etan, Lakuntzako udaletxean

Zabalarke mendi klubak antolatuta, larunbatean, 19:00etan, Josema Casimirok hitza hartuko du Lakuntzako udaletxean antolatutako hitzaldi-proiektioan. Casimiro 1986an Mari Abregorekin K2ra egindako igoeraz arituko da. Duela ia 30 urte egindako espedizioan bizitakoak gogoratzeko eta ordutik hona gauzak zenbat aldatu diren jabetzeko ezinbesteko hitzaldia izango da Lakuntzako, mendizaleek galdutako ezin dutena.



Mikel Zabalza Irurtzunen

Vallejorekin eta Inurrategirekin Chamlangeko espedizioari buruzko azalpenak emango ditu abenduaren 30ean, 20:00etan, Irurtzunen

Gabonei begira Irurtzunen prestatutako artean, mendiak bere tokia badu. Egungo mendizale ezagun eta handienetakoa den Mikel Zabalza Irurtzuno Kultur Etxera etorriko da abenduaren 30ean, 20:00etan, Nepalen berriki egindako espedizio baten berri ematera. Zehazki, Alberto Inurrategirekin eta Juan Vallejorekin batera mendebaldeko gailur-hertzatik Chamlangeko (7.319 m) igoera konplikatu nola egin zuten izango du hizpide Zabalzak. Hirukoteak 2015eko urriaren 18an zapatu zuen Chamlangeko gaina, espedizio oso konplikatu.

NEPAL BERRERAIKIZERA

Sarreran borondatea eskatuko da, eta jasotakoa Nepalen berreraikitza bideratuko da, Inaki Otxoa de Olzaren SOS Himalaya fundazioaren bitartez.

Mendia

Mendizgoizale egun udatiarra

Ehunka lagun bildu ziren Aralarren, Nafarroako mendizaleen egun handian


Gabonetako bezperetan baina udaberriko tenperaturekin ospatu zen aurtengo Mendigoizale Eguna igandean Aralarren. 51. edizio honetan mendizalez bete zen santutegia. Mendizale gehienek oinez jozuten, Uharteko Arakildik, Lakuntzatik, Iribasetik edo Madotzetik, baina autobusetan hurbildu zirenak ere asko izan ziren.

Festa 1964. urtean hasi zen ospatzen, urte horretan zendutako hiru mendizale—Jesus Ganuza, Emilio Castiella eta Javier Ardanaz—omentzeko. Urte horretan hiru mendizale horien alde meza egin zen Aralarren eta jende asko hurbildu zen bertara. Orduan, urtero mendizaleen oroimeneko festa egitea erabaki zen, Gabonen aurreko igandean.

Mendizaleendako egun kuttuna da, joandako mendizaleak oroitzeko eta beste klubetako aspaldiko lagun mendizaleekin biltzeko eguna. Eta baita ere urtea despeditzeko egun ederra. Aurreko hiru urtetan bezala, Anaitasuna klubak antolatu zuen eguna. 10:45ean hasi zen hildako mendizaleen oroimeneko meza, Mikel Garciandiak emandakoa. Mendizaleen materiala bedeinkatu zuen apaizak. Lekunberriko abesbatzak kanta-



Sakanako Mendizaleak taldekoak, Aralarra igotzen. Santutegia mendigoizalez bete zen igandean. UTZITAKOAK



tu zuen eta ohorezko aureskua dantzatzuz bertan. Ramon Arratibel "Rayo" lixarregotarrak mendian bizia utzitako mendizaleen aldeko poema irakurri zuen. Bukaeran, bildutakoek, Aralarreko Mikel aingerua gurtu zuten. Garciandiak nabarmendu zuenez, "mendizaleak santutegiko ezinbesteko zati bat dira".

Santutegiko aterpean mendizaleen inguruko erakusketa prestatu zuten. Garai bateko argazkiak, artikuluak eta beste bildu zituz-

ten. Juan Mari Feliu izan zen festa honetako sustatzaileetako bat eta festak jarraitzea da bere nahietako bat. Izan ere, mendi klubetako kide gehienak beteranoak dira. "Garrantzitsua da anaitasuneko festa honek jarraipena izatea eta belaunaldi berriak festaren antolaketan eta parte hartzean sartzen joan daitezela" nabarmendu zuen Feliuk.

Hamaiketako eta dantzak

Mezaren ondoren hamaiketako

bikaina eskaini zuten mendizaleek, trikitixa eta pandero doinuek goxotu zutena. Aralarreko tabernako ardurak hartu berri duten Mikel eta Miren Zulaikak prestatu zuten auzatea, eta denetatik zegoen: salda, patata tortilla, txistorra, haragia, krocketak... Casa Salinasek ardo dastapena eskaini zuen. 500 pertsonendako auzatea prestatu zen, eta dena bukatu zen. Ondoren, mendizale asko dantzatzera animatu ziren.

Gimnasia erritmikoa

Gabonetako erakustaldi ederra

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldeak Gabonetako erakustaldia egin zuen igandean Zelandian. Taldeko gimnastak ezin politoagoak: maillot ikusgarriak, ilea mottoetan bilduta eta makillatuta. Haiei begira, senitarteko eta lagunak. Gimnastak ikasturtean barna ikasitako mugimenduak, koreografiak eta dantzak eskaini zituzten, irakasleen argibideak jarraituz. Zelandian bildutakoek ikuskizun ederraz gozatu zuten.



UTZITAKOAK

Aurreztu zure denbora!

NEUMATICOS IRADI

Zerbitzu osoa nahi duzun lekuan

619 882 181 - neumaticosiradi@gmail.com

oreka
psikomotrizitatea

* Psikomotrizitate hezkuntza
* Psikomotrizitate terapeutikoa

649 125 996
psikomotriziteasakana@hotmail.com

Atletismoa

Agur 2015... KORRIKAN

37. San Silbestrea jokatu da Altsasun eta 14. Lasterketa Olatzagutian

Urtearen azkeneko egunean zapa-tilak jantzi eta 2015 urtea korrikan despedituko dute sakandar askok. San Silbestre lasterketak ate joka daude, eta korrikalariendako akaso probarik herrikoienak eta gus-tukoenak dira. Sakanan bi proba jokatu dira: Altsasuko San Silbestreak 37. edizioa beteko du aurt-en, Nafarroako zaharrena. Olazti-ko San Silbestreak, aldiz, 14. edizioa izanen du.

Altsasuko San Silbestrea, Nafarroako zaharrena

Dantzaleku-Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurt-en 36. edizioa beteko du Nafarroako proba beteranoena denak. Aipatu proba Mario Memoria izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen Mario Lopez de Uralde korrikalari altsasuarrenaren omenez.



Altsasuko aurreko urteko San Silbestrean 667 korrikalari aritu ziren.

Haurrak 18:00etan eta helduak 19:00etan

Abenduaren 31n, ostegunarekin, arratsaldeko 18:00etan emanen diote hasiera lasterketari, gazte-xoenen lasterketarekin. Aurrebenjaminak (400 m), benjaminak (800 m) eta kimuak (1.200 m) ariko dira, plazatik abiatuta euren-dako propio prestatutako distan-tzia osatzen. Haurren kategoria-

koek helduen proban parte hartu-ko dute, euren kasuan zirkuitu-ari buelta bat emanez (1,5 km). Ondoren, helduen proba guztia osatu nahi badute, aurrera jarrai-tu dezakete.

Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beteranoak 19:00etan udaletxe aurretik abiatuko den proba nagusian ariko dira. Korrikalari-ek Altsasun barna prestatutako zirkui-

tuari hiru buelta eman beharko diz-kiote, guztira 5 km osatuz. Proba-ko lehen hirugizon eta emakumez-koek trofeoa jasoko dute, eta lehen-dabizikoek txapelak.

2014an 667 korrikalari

Aurreko urtean 500 korrikalari-aren erronka nota handiz gaitu zen, 667 korrikalari-rik parte hartu bai-tzuten San Silbestrean, 516 proba nagusian eta 151 kategoria txiki-etan. Hiriberriko Ibai Huarte (14:46) eta Izaskun Beunza (17:19) gailen-du ziren. Antolatzaileek aurt-en ere urtea korrika egiten despeditze-ra animatu dute. Ea aurreko urte-ko kopuru horiek mantentzen diren.

Izena emateko: www.dantzalekusakana.com

Izena ematea dohainik da, eta Dan-tzaleku Sakanak web gunean izena emateko gomendioa egin du. Bes-tela, egunean bertan izena emate-ko aukera egongo da, 18:30ak arte.

Olazti > 14. San Silbestrea



San Silbestre lasterketaren 14. edizioa jokatu da urteko azken egunean Olatzagutian, 18:00etan, Sutegi elkarteak antolatuta. Lau kategoriendako lasterketak anto-latutuzte: txikiak, 7 urtera arte-koak (300 m), 8-11 urte bitarte-koak (600 m), 12-15 urte arte-koak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman beharko diete korri-kalari-ek, 5 km osatzeko. Proba 18:00etan hasiko da, eta frontoia izango du irteera eta helmuga. Pro-ban izena eman nahi duenak las-terketa aurretik irteeran jarrita-ko mahaitik pasa beharko du, 17:00etatik aurrera.

Mendia



Errege Egunean Beriainen bildu ziren mendizaleetako batzuk.

Mendiak

Trinitatea. Abenduaren 31n, ostegun-ean, Irurtzundik, 9:00etan. Irurtzungo Iratxo eta Pikuxar elkarteak antolatuta, txokolata-da eta Trinitatera igoera. Aurt-en 10. edizioa izango da. Iratxo men-di taldeko finalista eguna izanen da.

Aizkorri. Abenduaren 31n, ostegun-ean. Altsasuko Mendigoizaleek eta Olaztiko Sutegik deituta.

Lakuntzaskoarrri. Zabalarte men-di elkarteak antolatuta, abendua-

ren 31n, ostegun-ean, VI. Lakun-tza-Eskuarrri igoera eginen da. Irteera goizeko 8:30ean, plazatik. Hamaiketako eginen dute.

Beriain. Ilbeltzaren 6an, asteaz-kenarekin, 9:00etan Unanutik. Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta, Errege Egunean urte-ro egin ohi duten bezala.

Bargagain. Ilbeltzaren 3an, dome-kan, Altsasuko Mendigoizaleek antolatuta. Urteko lehen igande-an Bargagainera jotzen dute altsa-suarrek, 8:00etan aterata. Goian hamaiketako eta festatxoak.

Txirrindularitza



Bizikletan ere urteari agur

Sociedad Deportiva Alsasuak antolatuta, 2015eko San Silbestrea 33. Urbasa Igoera izanen da abenduaren 31n, 15:30ean

Sociedad Deportiva Alsasuak Altsa-suko Udalaren laguntzarekin eta hainbat komertzioaren babesarekin antolatutako San Silbestre bizikle-ta martxak 33. edizioa hartuko du aurt-en. Proba 15:30ean abiatuko dute zikloturistek. Gehien-ean asmoa ongi pasatzea da, baina badago lehiatza doanik ere. Aipatzekoa da badagoela txirrindularitza pro-ba honen ondotik 19:00etan abiatzen den San Silbestre oinezko las-terketan parte hartzen duenik ere.

URBASARA ALTSASUTIK

Urbasako igoera Altsasutik egingo da, eta txirrindulariek Urbasako tontorrera heldu beharko dute. Igo ondoren salda beroa hartzeko auke-ra izango da, gorputza berotzeko. Proba despeditu eta gero, txirrin-dulariek Sociedad Deportivako tabernan kamiseta bat jasoko dute dortsala bueltatzerakoan. Bertan eginen da sari banaketa, 17:30ean. Aurreko urtean 100 txirrindulari inguruk parte hartu zuten eta Ion Zeberio Morras eta Patxi Cia Apes-tegia izan ziren azkarrenak.

IZEN EMATEA

Proba hasi baino 45 minutu lehe-nago Sociedad Deportiva Alsasuan.

Agur 2015 eta ongi etorri 2016, mendian

Mendi tontorrak, mendizaleen topaleku egun seinatuetan

Urtea bukatu eta hastearen ingu-ruko mito eta ohitura asko daude. Eta mendi tontorrak dira horie-tako bat. Gurean oso hedatua dago egun seinalatu horietan mendira

jotzea, tontor garaietatik urtea joaten ikusteko edo urteari ongi etorria emateko. Sakanako men-dizaleek, jakina, ohitura hori berreskuratuko dute.

Urtea despeditzeko Aizkorri, Trinitatea eta Aralar dira ohiko-

enak. Lakuntzarrek Aralar alde-ra joko dute, Lakuntzaskoarrira. Eta urteari ongi etorria egiteko, askok Aralarko San Migelera, Beriainera eta beste joko dute. Bestalde, urteko lehen igande-an, ilbeltzaren 3an, Altsasuko

Mendigoizaleek Bargagainera joko dute urteari ongi etorria ematera. Eta, jakina, Errege egu-nean Sakanako Mendizaleek Beriain itzotzeko ohitura dute. Bertan jango dituzte azkeneko turroiak.

birziklapen laborategia sakana



Luis Diaz
660091381

Jabi Trapero
696000068

batuta.sakana@gmail.com

batuta sakana

birziklaketalab.blogspot.com

TRASKIL
MODA DENDA

UDAZKEN-NEGU DENBORALDIA

ETXARRI ARANATZ

kultura >>

ANDA ETA SALAZAR WKn: Bilboko Windsor Kultur-gintza galeriak bere jarduna biltzen duen 44-44 erakusketa kolektiboa ikusgai du ilbeltzaren 30era arte. Jose Ramon Anda eta Dora Salazarren lanak daude.

Mundu gerra osteko bakea ospatzera



Haize Berriak bandak *Gerra eta bakea kontzertua eskainiko du larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean*

Atomo-bonbak Hiroshiman eta Nagasakin; Dresdengo bonbardaketa... horiek eta gehiago utzi zituen orain dela 70 urte bukatu zen II. Mundu Gerrak. 8urte lehenago Durangoketa Gernikak bonbardaketa krudelak jasan zituzten. Mundu Gerraren akaberaren urteurrena gogoratu, Haize Berriak bandak musika eta irudia uztartzen dituen kontzertua prestatu du. Emanaldian Sakanako musika elkarteak Josu

Maroto ilustratzaile, karikatura egile eta hiri bizitza zuzenean marrazkietan jasotzen dituen sortzailearen laguntza izanen du.

Bandatik aurreratu dutenez emanaldian musika eta irudiarekin batera, "poza eta tristura, gerra eta bakea batuko dira. K.A. 1274 urteko Kadash batailatik II. Mundu Gerrara arte historia gerra-gatazkaz josita dago. Thierry Deleruyelle-k, Jan Hadermann-ek eta Jan Van der Roost-ek gatazka hauei doinua jarri diete, eta musika-lan horiekin gozatzeari aparte, hunkitu eta ikaratuko gaituzte kontzertuan".

Altsasuko gazteriaren egoera jasotzen duen film laburra

Joseba Salegiren lana ostiralean, 20:00etan eta 22:15ean, eta domekan, 20:10etan, Altsasuko Iortia kultur gunean proiektatuko dute 8 apellidos catalanes filmaren aurretik

Joseba Salegik zuzendutako *Zatoz Agur* film laburra Iortia kultur gunean ikusgai izanen da asteburuan. Haize Berriak bandako Estibaliz Curiel eta Arkaitz Martinez Mariñelarena musikariak aktore lanean jarri ditu Salegik, Tarima Beltza antzerki taldeko Merche Herrera eta Juan Manuel Herreroekin, Zaparekin, batera.

Film laburraren abiapuntua Enrike Zelaiaren *Xuberoa* piezaren banda eta akordeoirako moldaketa da. Doinuaren letrak eta gaur egungo altsasuar gazteriaren



errealitateak bat eginen dute pantailan. *Agur, Zuberoa* lelo ezaguna duen piezaren Zuberoatik Parisera izan zen emigrazioaren berri ematen da. Doinuaren bariazioan oinarrituta gertaera historikoa zena gaur egungo Sakanara ekarri du Salegik, "gauregun gure ibarrean gazteen emigrazioa gertatzen ari delako". DVDa aurki salgai izanen da. +www.guaixe.eus

Paperezko ganbarara

A benduaren 10ean, aretoa leporaino bete zegoela aurkeztu zuen Mari Romero Fernandezek bere liburua: *Una casa en la buhardilla* (2015, Tandaia). "Idazte prozesu guztia nola izan zen kontatu nuen eta bukaeran galderak egiteko aukera gutxi gelditu zen. Legazpin bezala, Altsasun ere jendeak ni hitz egiten segitzeko gogoz gelditu zela ematen zuen".

Liburuaren tituluak aipatzen duen ganboikoko etxea Altsasuko Foru plazan zegoen, Juanito eta Oiarbide tabernak zirenaren gainean. "Berriki etxea bota dute beste bat jasotzeko". Familiarendako, betidanik, ganboikoko etxea da. "Senideak Extremaduratik hona etortzen arizirenean... hasieran etxe hartan bi familia batera jarri ginen bizitzen, gehi amona, gehi izeba bat. Jende pila. Bai gu bai Altsasuko Fortuna abizena zuen beste familia bat".

Extremaduratik etortzean "elkartzeko toki bat zen ganboikoko etxea: etxebizitza opatu arte; dela jaun hartzea, dela ezkontza, han ospatzen genituen". Romerok gogoratu duenez, "harreman oso estuak genituen etxe hartan". Eta gaineratu du, "Altsasun bizitzen jarraitu banu, ez dakit etxeak niretako hainbeste erakarpen izanen lukeen".

Izan ere, 10 urterekin Legazpirajoa ziren bizitzera. Etxea ez zuen gehiago ikusi. "Baina Altsasura joaten nintzen bakoitzean lekuak erakartzen ninduen". Etxean bizitako oroitzapenak biziberritzen zituen. "Ume pila jaso ziren han. Hil ere bai". Etxe hori "beti bueltaka" zuen.

Prozesua

"Sentimenduak azalean nituen une batean, justu bihotzeko izeba bat hil zenean, ganbarako etxeko giltza lortu genuen". Han sartu eta eskailerak igotzearekin batera oroitzapenak bata bestearen atzetik



etorri zitzaizkion Romerori. 2012 urtea zen. Han bizi izan baitzizuten pozak eta tristurak; "herrimina, diru aldetik une estuak..."

Etxera joan "eta hainbeste sentipen nola bideratu ez nekienez idazten hasi nintzen". Liburuaren idazketa "nahiko azkar" egin zuen, "barruan nuen guztia di-dabatean atera zen".

Lacasa de la buhardilla liburua izan zen emaitza, berak idatzitako lehen liburua. "Autobiografia da. Eleberri bat bezala idatzita dago. Gauza batzuk literatura ukitua dute. Batez ere, nire familiarren historia dago jasoa, Extremadura utzi zutenetik Altsasura etorri arte". Romerok azaldu digunez, liburua kapitulu bakoitza familiako kide bati eskainia dago, "batez ere amaren familiakoei". Abiapuntu hori izanda historia guztia garatu zuen Romerok liburuan.

Romerori, argitaratzeagatik, jendeak "ausarta" dela esan dio. "Hasieran ez nuen argitaratzeko asmorik", aitortu digu. Senideek, lankide eta lagunak irakurri eta asko gustatzen zitzaizela esaten zioten; kritika idatzitako positiboak ere jaso

zituen. "Nire lagunak eta lankideak badira, zer esanen didate, ba" pentsatzen zuen Romerok. Hariketa Bernardo Atxagak irakurri zuen arte. "Altsasuko lehengusina bat Zalduekoko batekin ezkontuta dago eta haren bidez iritsi zitzaion liburua". Atxagak e-posta bidez eman zion iritzia. "Niretako bakoitasun handia izan zen hura. Gertuko ez zen eta literatura adituaren baten kritika zen". Horrek Romerori liburua "ongi" egon zitekeela eta jendea irakurtzea gustatuko litzaiokeela pentsarazizion.

Santiago de Compostelako Tandaia argitaletxeak antolatutako lehiaketara aurkeztu zuen. Liburuaren katalogoan nahi zutela esanez deia jaso zuen Romerok. Adostasuna lortu eta bi aldeek dirua jarrita argitaratu zen liburua lastailaren 16an. "Harrera oso ona izan du". Dagoeneko bigarren edizioa kalean da.

Bestalde, pasa den urteko maiatzaren 14an Romerok Ecoenvesek birziklatzearen inguruan antolatutako *Los profes cuentan* ipuin lehiaketako saria jaso zuen. +www.guaixe.eus

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik

mariaeugenia
Arrainak

Eguberri zoriontsuak izan!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



Bakarleri etxarriarra etxera bueltan

Iñaki Auzmendik kontzertua eskainiko du larunbatean, 20:30ean, Etxarri Aranatzan

Punto y seguido izenburua eman dio Iñaki Auzmendik gaur eskainiko duen kontzertuari. Gitarra lagun, ahots sendoarekin, bere aurreneko diskoa den *Raíces de Piedra y Esperanza* diskoa aletuko du. Baita hurrengo lanean jasoko dituen kantu berriak ere. Oholtzan Juanmi Arzelus (gitarra elektrikoa) arbizuarrak, Julia Moralesek (zeharkako txirula) eta Ana Turcanek (biolina) lagunduko diote. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Pisu-kideen gorabeherak jendaurrean

Ilbeltzaren 2an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean

Sakanako sortzaileen lanak ezagutarazi nahi dituen Agertokiye programaren barruan, Atea Tatroak *Ekoetikopatetikobikoa* antzezlanak jokatuko du Etxarri Aranatzan. Alex Tellok idatzi eta zuzendutako antzezlaneko protagonisten papera Anabel Arraizak eta Jabi Rodilek jokatzen dute.

Biki eta Viktor pisu-kideak eta haien elkarbizitza dira antzezlanaren ardatza. Viktor etxebizitzaren jabea da eta lanik egiten ez duenez Bikik ordaintzen dion errentarekin eguneroko gastuei ozta-ozta aurre egiten die aurre. Bikik eta Victorrek elkar ezagutu zutenetik urte bat pasa denean kontratuaren berritzea eztabaiatu beharko dute. Horretarako, jendaurreko hitzordu bat antolatu dute eta publikoak lagunduko dienezgiaketa aurrera eramaten. Antzezlanak Donostiako Poltsikoko Antzerki Sorkuntzaren lehia-keta irabazi du aurtan.



Elkartasun jaialdi bikoitza

Ilbeltzaren 10ean, igandean, 18:00etan eta 20:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

Zama doinuz arinduz, izen hori du Sare eta Etxeratak Etxarri antolatu duten elkartasun jaialdiak. Jakinarazi dutenez "dispertsioaren errealitatearen kontakizuna musikari ezagunez lagunduta" eginen da. Jaialdian Esne Beltza, Oreka Tx, Maider Ansa (Tximeleta), Ruper Ordorika, Vendetta, Naroa Gaintza (22 m2), Tapia eta Leturia eta Aitor Gorosabel eta Xabier Bastida (Sutagar) ariko dira.

Sarrerak alde aurretik Etxarri Aranazko udaletxean (bulego ordutegian) edo www.etxarriaranatz.eus web orriaren bidez erosi daitezke, baita Xapatero eta Leku Ona tabernetan ere.

bazterretik

Iosu Lizarraga

Aplikazioen munduan nabigatzen III

Duolingo

Hizkuntzak ikasi eta erreparatzeko balio duen aplikaziorik balioenetarikoa. Hizkuntza desberdin pila ditu barne: Ingelera, alemana, italiara, frantsesa, portugesa... (Doan).

Untappd

Garagardoen sare soziala. Edatek duzugaragardoa puntuatu, argazkia igo eta kokapena jarri dezakezu, opari moduan dominak lortzen joango zara. Sare sozial guztiak bezala, lagunak eginduzakezu, bere ibilbideak jarraitu, besteen checking-ak komentatu edota "gustuko dut" eman. Garrantzitsuenak, garagardoez asko ikasi dezakezu! (Doan).

Moovit

Garraio publikoaren aplikaziorik egokiena. Metro eta bus ordutegi eta mapa guztiak ditu barne, zein ordutan iristen den edo iristeko zenbat falta den informatzen zaitu. (Doan).

Maps.me

Mapak internet konexiorik gabe ikusteko aplikazio bikaina. Mapak deskargatu eta internet ez duzun leku batera joaten bazara (adib. atzerrian), problemarik gabe mugitu ahal izango zara. (Doan).

Eztanda Irratiapp

Eztanda Irratia streaming entzuteko aplikazio ofiziala. Horretaz gain, programazio osoa ikus dezakezu. Aplikazio honen sortzailea ni naiz, eta aplikazioaren bigarren bertsioaren prozesuan nabil. Adi egon, laster kaleratuko dudala! (Doan).

Keep

Google-ek eginiko nota aplikazioa. Listak, nota sinpleak, argazkiak, audioak edota marrazkiak gorde ditzakezu. Gainera, errazago ikustarazteko, atzealde koloreduna jartzeko aukera

duzu. Gmail kontuarekin zure nota guztiak sinkronizatuta dauzke, zure edozein dispositibotan ikustarazteko. Horretaz gain, zure lagunekin notak lotu ditzakezu, eta zuzenean editatu. (Doan).

mSecure

Zure kontu guztien pasahitzak gordetzen dituen aplikazioa. Pasahitz master bat jarri aplikazioa ireki ahal izateko eta barne-angorde ditzakezu erabiltzen dituzun pasahitz ezberdinak, inoiz ez ahazteko. (7,99€).

Opera Max

Internet datuak aurrezteko balio duen aplikazioa. Internetetik nabigatzen duzunean deskargatzen diren argazki edota bideoen kalitatea pixka bat jaitsiz datu pila aurrezten ditu. Lasai egon, zeren mugikor pantaila txikietan ez da batera nabaritzen kalitate jaitsiera hori. (Doan).

Audials

Munduko streaming irrati guztiak, mugikorrean dituzun mp3 abestiak entzuteko eta abestiak "jaisteko" balio duen aplikazioa. Abesti zehatz bat nahi izanez gero, aplikazioan zein abesti den jarri, eta munduko irrati guztietan begiratzen hasiko da abestia aurkitu arte, abesti osoa grabatu eta jaitsiko du. (Doan).

Appy Geek

News Republic-ek eginiko teknologia berriak irakurtzeko balio duen aplikazio ikaragarri polita. Zure gustuko atariak gorde, eta eguneko eta puntako teknologia berri guztiak zure esku izan. (Doan).

Kiosk

Albiste irakurketa aplikazioa. Interneten dauden albisten portal ezagunetarikoa ditu barne. Berriak partekatu eta gogokoetan jarri ditzakezu, gero forma azkar batez ireki ahal izateko. Aplikazio erraza, azkarra eta ikusgarria. (Doan/1,46€).

Eguberri marrazkiak

Ilbeltzaren 6ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Migel Angel Agirre oroi-menezko VIII. marrazki eta margo lehiaketara aurkeztutako marrazkiak ikusgai daude gaurtik. Altsasuko ikastetxeetan ikasten ari diren haurrek eguberria irudikatzen lehiaketara aurkeztutako 400 marrazki inguru ikusgai daudenak. Lehiaketak hiru maila ditu: 0 eta 6 urte bitartekoa; 7 eta 9 urte artekoa eta 10 eta 12 urtekoena. Maila bakoitzean bi sari banatuko dira. Sari horiek, eta familiak emandakoa, erregeen magoen etorrera iragartzen duen morroien bisitan banatuko dira, ilbeltzaren 3an. Marrazki onenak errege kabalgataren egitarauaren berri ematen duen



kartela ilustratuko du. Migel Angel Agirre izan zen lehiaketa sustatu zuena, 2006 hil zen eta bere oroimenezko antolatzaileek bere izena jarri zioten.

Bestalde, Iortia kultur guneko

kristaldegia Olentzeroren marrazkiez beteta daude. Eguberri Taldeak txikiei ikazkinaren marrazkia egiteko gonbitea luzatu zien eta haiekin erakusketa antolatu du.

Ogiaren artisaunak

PORTUKO

okindegia

Urte berri on!!

ERREGE-OPILAK AURRETIK ESKATU

ETXARRIARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Txalaparta

Ez gaude denok!

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

TXIKIKINO

haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08

Ferialeku 2 - ALTSASU

BILTOKI

TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Ongi pasa egun hauetan!

Ez daudenak gogoan izan!

948 467 876 • Altsasu

Irudimenak hegan, egiteko liburua

Idoia Zufiaurre, Chuffi, artista urdiaindarrak Enrique Villarreal El Drogasen Hegan egiteko zapatilak liburu berriaren ilustrazioak egin ditu

Erkuden Ruiz Barroso

Haikuak erabili ditu Enrique Villarrealak, El Drogasek, barruan zuena adierazteko. Haikuak Japoniako testuak dira eta arau zehatzak dituzte. *Hegan egiteko zapatilak* ez da kontakizun soil bat. "Istoria, kontakizun txiki, poema eta esaeren liburu bat da". Idoia Zufiaurrek, Chuffik, Villarrealen haikuak ilustratzeko "ohorea" izan du. Villarrealak bigarren biloba izan du, hortaz, liburu berria umeei zuzenduta dago. Hala ere, helduek ere liburuaz disfrutatu dezakete. "Umeendako denez irudimena lanean jartzen da".

Villarrealak Zufiaurreren marrazki bat ikusi zuen eta bere liburu berriaren ilustratzailea izatea nahi izan zuen. Zufiaurrek askatasun sortzailea izan du ilustrazioak egiteko. Testuetan oinarritu da baina marrazkiekin "jolas" du. "Nik asko disfrutatu dut. Far asko egin dut. Oso exigentea izan da, baina askatasuna nuenez oso lan atsegina izan da". Chuffik, Villarrealen hitzak marrazkira eramatea "erraza" dela dio, Villarreal oso pertsona sortzailea baita.



Umeendako liburua

Publikoa oso kritikoa dela dio, izan ere, "umeei ezin zaie engainatu". Gainera, liburua umeei zein helduei bideratuta dago, beraz, exijentzia bikoitza da: "umek norbaitekin irakurtzen ohi dituzte liburua, eta, baliteke helduek aproposa duten haiku bat aurkitzea. Guztiok dugu ume bat barruan lotan". Gaiak oso anitzak dira eta marrazkiak "eroak", baina betiere "egitura" baten barruan. "Umeendako irudiak direla kontuan hartuta egin dut lan". Villarreali zein dagoeneko liburua ikusi dutenei "asko gustatu" zaiela azaldu du Zufiaurrek. "Horrek betetzen zaitu".

Chuffik beste hainbat proiektu artistikoetan erabiltzen dituen tresnak erabili ditu oraingoan ere, baina lehenengo aldia da liburu baten ilustrazioak egiten dituela. "Ilustrazioan egin dut igeri beti baina ez dut holako zerbaite inoiz egin". Etorkizunerako antzeko proiektu bat omen dauka eskutan, baina oraindik ez du ezer itxi. "Aurrera eramatea espero dut". Ez du berak egindako liburu ilustratua argitaratzea baztertzeko. "Egiten badut ez da apalean gelditzekeko liburu bat izango".

Hegan egiteko zapatilak pasaden asteazkenaz geroztik dago salgai.



Nonerabili

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldatzetan % 20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

HOSTOAK LOREGINTZA

LAKUNTZA

20 €tik gorako erosketetan %8ko deskontua, garaiko landareetan izan ezik.

ILAIA ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

Deskontu bereziak.

T. IRIARTE

IRURTZUN

50€ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-batekin hurrengoan erabiltzeko.

Sustrai Colina Iturmendiko eta Urdiaingo ikasleekin

Abenduaren 9an Sustrai Colina bertsolari lapurtarra Iturmendiko Arrano Beltza Eskola Publikora etorri zen. Iturmendiko eta Urdiaingo LH 4., 5. eta 6. mailako ikasleei bere H gabe liburuari buruz hitz egin zien.

Iturmendiko Arrano Beltza eskola

Urdiaingo ikasleak oinez etorri zirenekin zuzenean eguraldi ona zela eta. Eskolan denak elkartu ziren eta Colinari harrera egin zioten. Saio batez ikasleek nahi zituzten galderak egiteko aukera izan zuten, bertsolariak gogoenez erantzun zizkion. Ikasleek liburu bat idazteak suposatzen duen lana eta denboraz jabetzeko aukera izan zuten eta idazlea aurrez aurre ezagutzea dakartzen onura guztiak ezagutu ahal izan zituzten. Jarraian, Urdiaingo ikasleek Colinari bertso batzuk eskaini zizkion eta berak, esker onez, beste bertsoekin erantzun zien.

Bertso saiotxoak bukatu ondoren, ikasleek euren liburuak sinatzeko eskatu zioten eta gehiengoek poz-ozik liburuak etxera firmatuta eraman zuten.

Bisitari amaiera emateko, Iturmendiko haurrek bertsolari fama



tua elkarrizketatu zuten beraiek sortzen duten Beti Handi aldizkarian argitaratzeko.

Goiza ondo bukatzeko, Urdiaingo eta Iturmendiko ikasleek elkarrekin jolasteko aukera izan zuten eta haien arteko harremanak sortu eta sendotzeko aukera paregabea izan zen.

Ekintza hori Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren eta Euskal Idazleen Elkartearen elkarlana eta laguntzari esker burutu

Ikastetxe parte-hartzaileak

Herria	Ikastetxea	Idazleak
Irurtzun	Atakondoa	Unai Elorriaga eta Jasone Osoro
Etxarri Aranatz	San Donato	Xabier Mendiguren
Urdiaingo	Urdiaingo	Sustrai Colina eta Pello Añorga
Altsasu	Zelandi	Castillo Suarez
Olatzagutia	Domingo Bados	Sustrai Colina

ahal izan da. Horrela, gure ikastetxeek ikasleei euskal literaturaz ikasi eta gozatzeko aukera eman diete. Irakurzaletasuna sustatzeko lagungarri izan den ekintza bat

izan da, bide batez, ikasleei literaturaz gozatzeko bidea emanez. Euskal literatura erakusteko aparte, ikasleak gozaten ere ikusi ditugu.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 8%	euria: 18%	euria: 20%
Min: 7 Max: 12	Min: 6 Max: 14	Min: 6 Max: 12	Min: 6 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 5 Max: 11	Min: 5 Max: 12

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun
Etxarri A.
Altsasu
Aralar
Urbasa

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
25	2	10	16

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri kobazuloetarako sarrera, Artazako kanpinera-ko deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako kanpinera-ko deskontua, Lacturale lotea, Artiumerako sarrerak, Gaztezulo aldizkarirako harpidetza eta Magna Gurpearako bi sarrera.

Ekain berri

CAMPING ARTAZA

>> 11 galdera

Iosune Diaz Arce

Altsasuko Bilgune Feministako Kidea

Testua: Eñaut Aguirrebengoa Apaolaza



Josune Diaz egindako elkarrizketa, osorik: www.guaixe.eu

EGUNERO ZUREKIN, GUREKIN, ELKARREKIN TXIOKATUZ...

2016 URTE BERRI ON!!

beleixe 107.3 FM guaixe.eu

1.- Nola sortu zitzaizun Bangaloreko topaketan parte hartzeko aukera?
 Ideia Kalkuta Ondoan Gobernu Kanpoko Erakundeak sustatu zuen. Honek Euskal Herriko bi mugimendufeministari, Mugarik Gabe-ri eta Bilgune Feministari gonbitea luzatu zien. Bilgune Feministan barne aukeraketa egin zen, eta nire ize-na proposatu zuten, ingelera eta euskara maila aproposa daukadalako.

2.- Bidaiak ez zizun zalantzarik eragin?
 Niretzat zalantzarik handiena horrelako esperientzia batean parte hartzeko gai izango ote nintzen zen. Han egin nezakeen ekarpenak zalantza sortzen zidan. Baina behin behar bezalako lanketa bat egin da, nire burua prest ikusi nuen.

3.- Euskal Herriko beste hiru pertonekin izan zinen.
 Bai, oso lagungarria izan zen. Bilboko aireportuan Mugarik Gabe taldeko kidea Maria Viadero topatuen, eta ondoren, behin Indian geundela, Yolanda Barcorekin elkartu ginen. Yolanda elkarlanean dabil Kalkuta Ondoan-ekin. Asko ikasi dut haiengandik.

4.- Mundu guztiko aktibistak elkartu zineten Indiako topaketan.
 Bostegunetako batean auzitegi sinboliko bateratu genuen, Emakumeen Gorteak deiturikoa. Hamar orduz izan ginen testigantzak entzuten. Istoriogorrraketa, era berean, biziki interesgarriak aditu genituen. Mundu osoko emakumeak izan ziren esperientziak kontatzen: Hego-

afrikakoak, Irakekoak, Afganistangoak, Estatu Batuetakoak... Aniztasun hori da urtero ospatzen den topaketa hau berezi egiten duena.

5.- Zer nolako egoera bizi dute emakumeek Indian?
 Kastaren arabera egoera nabarmen aldatzen da. Kasta edo klase baxukoek ez zuten jardunaldi hauetan parte hartzeko aukerarik izan. Baina egoera latza dela badakit. Adibidez, ezkontzetan familiek dote handiak ordaindu behar izaten dituzte, eta horrek emakumea loturik uzten du. Gainera, alabak ez izateko abortuak ugariak dira, eta une honetan Indian emakumeak baino gizon gehiago daude. Hori arazo handia da.

6.- Egoera hori izanda, menturaz iraultzailetik badu horrelako topaketa bat bertan egiteak.
 Uste dut emakumeek bertan bizi duten egoerak zeresana izan zuela aukeraketan. Emakumeen eskubide urraketa larriak gertatzen ari dira, kaleko bortxaketak kasu, eta horri aurre egiteko horrelako egitasmo bat bertan garatzea erabaki estrategiko oso aproposa dela deritzot.

7.- Gerrek emakumeengan duten eragina aztertu zenuen.
 Bertatik ondorio nagusi bat atera genuen: emakumeok indarkeria arazoak mundu osoan pairatzen ditugula. Eskubideen zapalkuntza leku guztietara zabaldua da. Horrek funtsezko egiten du gure artean topatzea, biltzea eta erresistentzia mota desberdinak elkarbanatzea.

8.- Zer desberdintasun daude gerran dauden herrialdeetako borroka feministaren eta hemengoaren artean?
 Konfliktu egoeran dauden herrialdeen kasuan egoera latza da, dena biziraupenera zuzendurik dago. Hori dela eta, hainbat alor, borroka feminista kasu, ezin dituzte horren sakonki jorratu. Kasu batzuetan lortzen dute, eta horrek izugarriko meritua dauka.

9.- Bestelako gatazkak ere izan zenituzten hizketa gai.
 "Gatazka" hitza erabiltzerakoan armak etortzen zaizkigu burura, baina gure lurraldeen nuklearizazioa, gure gorputzen kontrola, pobrezia, gutxiengo bazterketa... Guzti hauek ere gerrak dira. Eta zer esanik ez patriarkatuaz. Oraindik hor dugu, emakumeon eskubideak urratzen.

10.- Zer egin daiteke munduan indarrean den sistema patriarkal horrekin behin betiko amaitzeko?
 Oinarritzkoena feministon artean sareak eta aliantzak ehundu eta sendotzea da. Bestetik, erresistentzia mota desberdinak garatu, eta ondoren elkarbanatzeak garrantzi handia dauka.

11.- Topaketa hauetan parte hartzeak zenbateraino aldatu ditu aurretik zenuen ikuspegia?
 Konturatu naiz denok dugula zer-bait esateko. Nahiz eta gazteak edo feminismoan esperientzia gutxi-koak izan. Gainera, han bizitako guztiak hemen borrokatzen jarraitzeko indar handia eman dit.